



ITZULERA EKITALDIA SAN JUAN EGUNA GOZATZEKO

Monterronen batu dira Arrasateko musika, dantza eta erraldoi eta kilikien taldeak; bezperan, euriagatik, bertan behera geratu zen plazako ekitaldia / 12

Lore Gazteak dantza taldea, erraldoiak alboan eta Arrasate Musikaleko banda ohol-tza gainean, Arrasateko Monterron parkean, atzo eguerdian. XABIER URZELAI

CUP alderdiko David Fernandez izango da asteburuko Manlleu-Bergara topaketako gonbidatuetako bat / 4

Elkarte gastronomikoak hasi dira irekitzen, azken garbiketak eginda

Urriaz geroztik itxita dauden elkarte gastronomikoak zabaltzen hasi dira; Arrasateko Danok Bat, adibidez / 3



Ibarreko bost etxaldetara antolatu ditu bisitak domeka goizerako Ereindajanak / 6

SINADURAK

	JON ETXEBERRIA / 8		JOSU ZUBIA / 34
	ANE ZUAZUBISKAR / 11		AGURTE BARRUSO / 48

+



Eurek ere badakitelako pilotan jokatzeko

Jone Arrazola antropologoari elkarrizketa

Arrasatekoak gara

Otalora Lizentziaduna, 18 | Tel.: 943 79 29 95 | ARRASATE



Kontsultatu optikaren konpainiaren erabakia.

Ikusmen azterketa
doan
+
opariak eta deskontuak

www.multioplicas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen


#95.91/20



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	10	15	1.402	116	218
Arrasate	3	16	3.116	141	86
Aretxabaleta	3	3	797	112	84
Bergara	2	4	1.602	106	39
Antzuola	2	0	242	111	91
Aramaio	1	0	173	116	67
Eskoriatza	0	0	399	97	0
Elgeta	0	0	64	56	0
Gatzaga	0	0	11	44	0
GUZTIRA	21	38	7.806	120	91

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Kutsatu kopuru baxuak maskararen erabilera malgutzea ekarri du

21 kasu berri hauteman dituzte; iazko uztailaren 8ko astetik izan den kopururik baxuena –zortzi izan ziren–. Sasoi berean, uztailaren 16an, nahitaezkoztat jo zuten maskararen erabilera aire zabalean; eta, hain zuzen, bihar indargabetuko da neurria

Maialen Santos ARRASATE

Bihartik aurrera ez da nahitaezkoa izango aire zabalean maskara erabiltzea; betiere, pertsonen arteko metro eta erdiko segurtasun distantzia bermatzen bada. Hala iragarri zuen joan den astean Espainiako presidentek Pedro Sanchezek, eta eguazteneko Osasun Publikoaren Batzordeak eman zituen xehetasunak. Horiei jarraiki, espazio itxietan eta pertsonen arteko distantziarik gorde ezin denean, orain arte bezala, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea; baita garraio publikoan eta ekitaldi jendetsuetan ere. Salbuespen bat ere egongo da: zentro soziosanitarioetan eta funtsezko langileen –osasun langileak, irakasleak, suhiltzaileak, poli-

zia...– lantokietan erabilera ez da derrigorrezkoa izango, langileen %80 txertatuta badago.

Gogoratu behar da EAEn iazko uztailaren 16az geroztik izan dela derrigorrezkoa maskararen erabilera aire zabalean.

KASU POSITIBO BERRIAK

KUTSATZEK BEHERA EGIN DUTE; 21 IZAN DIRA AZKEN ASTEAN

21 izan dira azken zazpi egunetan kutsatutakoak, eta nabarmendu behar da iazko uztailetik zenbatutako kopuru baxuena dela hori. Pandemia hasi zenetik, 7.806 lagun kutsatu ditu gaitzak, eta 170 hil. Azken astean, baina, ez da inor zendu.

Herrika, Oñatin erregistratu dituzte kutsatu gehien (10). Arrasaten eta Aretxabaletan hiruna kutsatze izan dira; Bergaran eta Antzuolan bina eta Aramaion bat. Esan behar da, gainera, iazko abuztuaren 14az geroztik lehen aldiz ez zutela kutsaturik baieztatu domekan.

Intzidentzia-tasari dagokionez, Debagoienekoak behera egin du azken zazpi egunetan, eta 100etik behera kokatu da –atzko 91,03koa zen–. Aipatzekoa da Gipuzkoako tasa eskualdekoaren azpitik kokatu dela azken egunetan, eta lurralde horretakoa da EAEko besteekin alderatuta, txikiena.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, duela bi astetik ez dago gaitzak jota ingresatutako gaixorik.

TXERTAKETA KANPAINA

TXERTAKETA ZIKLOA BUKATU DUTENEK, BERROGEIALDIRIK EZ

Osasun Publikoaren Batzordeak eguaztenean onartutako erabakia da txertoaren bi dosiak hartu dituztenek –edo protokoloek aginduta txerto bakarrarekin immunizatutakoak– ez dutela berrogeialdirik bete beharko, nahiz eta positibo baten kontaktu estua izan.

Bestetik, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak iragarri du Osakidetza 40 urtetik beherako herritarrei txertoa ematen hasiko dela datorren astean; alegia, 30 eta 39 urte bitartekoei. Osakidetzaaren webgunean txanda

hartzeko aukera zabalik dute multzo horretako lagunek.

Horrez gain, porretan egonda ere lehentasuna txertoari emateko dei egin du sailburuak; izan ere, bigarren dosiari ezetz esaten diotenek "geroago" hartuko dute txertoa, baina, immunitateari dagokionez, eraginkortasuna gal daiteke. "Gauza jakina da, adibidez Pfizerren kasuan, lehenengoa jaso eta 21 egunera jarri behar dela bigarrena. Epe horiei uko eginez gero, immunitate-maila ez da bera izango", argitu du.

Osasun Sailak esan duenez, 16 urtetik gorako herritarren %62,3k jaso dute dosi bat gutxienez eta EAEko biztanleen %42,4k bukatu dute txertaketa prozesua. Azkenik, %1,6 izan dira txertoa jarri ez dutenak.

Ziurtagiria lortzeko beste modu bat

Europako Batasuneko herrialdeetara joan-etorriak erraztea helburu duen COVID ziurtagiria eskuratzeko beste aukera bat egokitu du Osakidetza. Kasu honetan, ez da beharrezkoa izango sinadura elektronikoa erabiltzea. Osasun sailburuak azaldu duenez, "bideak erraztu" gura izan ditu Osakidetza, eta orain, osasun txarteleko zenbakiarekin eskatu ahal izango da COVID pasaportea, Internet bidez. Bi dokumentu eska daitezke: txartaketa-ziurtagiria eta errekupeazio-ziurtagiria.

Hori egiteko hainbat datu behar dira. Osakidetza txartelaren zenbakia, jaiotza-data eta norberaren lehenengo abizena jarri behar dira dagozkien tokietan. Ondoren, azpian ageri diren hizkiak sartu behar dira eta, azkenik, 'Egiatatu telefonoa' aukera sakatu.

Prestaketa lanak eginda, zabaltzen hasi dira elkarte gastronomikoak

Labik hartutako erabakiaren ondoren ireki ahal izan dituzte. Debagoienean zabalik daude asko, eta bazkideak itzultzeko gogotsu daudela diote presidentek

Maialen Santos ARRASATE

Egoera epidemiologikoak hobera egin duela-eta, Labiren Aholku Batzordeak orain arte indarrean egon den dekretua moldatzea eta neurri malguagoak ezartzea erabaki zuen joan den asteko egubakoitzeko bileraren ostean. Dekretua argitaratuta, zapatua ezkerreko dira neurri berriak indarrean.

Berritasunetako bat da urriaz geroztik itxita dauden elkarte gastronomikoak eta txokoak berriro irekitzeko baimena eman duela Labik, baldintza jakin batzuekin ireki ahal izango badute ere. Zehazki, 09:00etatik 02:00etara egon ahal izango dira zabalik, eta ostalaritzako irizpide berberak jarraitu beharko dituzte; alegia, %50eko edukiera bete ahal izango dute, gehienez ere, eta mahai bakoitzeko sei pertsona batu ahal izango dira. Zutik edota barran ezingo da kontsumitu, eta, espazio itxi guztietan legez, maskararen erabilera nahitaezkoa izango da –salbuespena izanik jateko edo edateko momentua–. Azkenik, elkarte eta txokoak etengabe aireztatuta egon behar direla ere ohartarazi zuen Labik.

Prestaketa lanek, "ahalegina"

Debagoienera etorrita, herrietako elkarte gastronomiko askok ireki dituzte ateak dagoeneko. Arrasateko Danok Bat elkarte presidentea Jose Mari Balzategi, Aramaioko Gantzaga auzoko Izpizte elkarte presidentea Ainara Inuntziaga eta Bergarako Gure Ametsako presidentea Andoni Urzelai Labiren erabakia jakin berrikan hasi ziren norbere elkartean lanean, eta azaldu dute "prestaketa lan dezente" egin behar izan dituztela zuzendaritza batzordeko kideek, "horrek eskatzen duen ahalegina

eginda". Hain zuzen, inbentarioa izan da egin behar izan duten lehena; izan ere, azken hilabeteetan almagazetan geratutako produktu asko iraungi egin dira dagoeneko, nahiz eta azaldu duten saiatu direla galdu aurretik

aprobetxatzen; esaterako, bazkideei prezio merkean eros- teko aukera eman. Eskaera berriak ere egin behar izan dituzte elkarte askotan, eta, hori ez ezik, garbiketa lanak ere egin behar izan dituzte ireki aurretik.



Arrasateko Danok Bat elkartean, eguaztenean. XABIER URZELAI

Zein baldintzatan ireki duzue elkarteak?



JOSE MARI BALZATEGI
ARRASATEKO DANOK BAT

"San Juan bezperan ireki genuen eta bazkide batzuk animatu ziren afaltzera"

"Eguaztenean, San Juan bezperan ireki genuen elkarteak eta lehen egunean bazkide batzuk animatu ziren afaltzera. Labiren erabakia jakin berrikan, zapatuan hasi ginen irekiera prestatzen; inbentarioa egin behar izan genuen, eta beharrezko produktu guztiak eskatu. Hori gutxi balitz, garbiketa berezia egin dugu ateak zabaldu aurretik. Irekitzeko gogoa banuen; izan ere, elkarteak jendearen topaleku izaten da. Halere, edukiera murriztuta, 50 lagun elkartu gaitezke, gehienez. Bestetik, aipatzekoa da bazkide bakoitzak duela segurtasun neurriak betetzeko ardura. Protokolo bat prestatu dugu ezohiko egoera honetarako".



AINARA INUNTZIAGA
ARAMAIOKO IZPIZTE

"Uda sasoiari karta-jokoan aritzera etortzen dira erretiratu asko"

"Gantzaga auzoko Izpizte elkarteak zapatuan ireki genuen. Hilabete asko eman ditugu elkartera joan barik, eta bazkide asko noiz ireki ahal izango genuen galdezka izan ditut; itzultzeko irrikaz, alegia. Nik, pertsonalki, oraindik ez dut otordurik egin elkartean, baina badakit hainbatek domeka aprobetxatu zutela bazkaria egiteko, eta astean zehar ere izan dira erreserbak. Produktuei dagokienez, ez dugu gehiago eskatu behar izan; dugunarekin egingo dugu aurrera, momentuz. Datozen asteetan jendea gehiago etortzen hasiko dela aurreikusten dut; izan ere, uda sasoiari karta-jokoan aritzera etortzen dira erretiratu asko, arratsaldeetan".



ANDONI URZELAI
BERGARAKO GURE AMETSA

"Ahalegina eskatzen du elkartean berriro ere dena martxan jartzeak"

"Astelenean ireki genuen elkarteak; izan ere, denbora asko eman dugu itxita eta aurrez lan batzuk egin behar izan ditugu. Zuzendaritza batzordeko kideak aritu gara dena prestatzen, berriro zabaldu ahal izateko. Esango nuke ohitu egin garela elkarteak itxita egotera, eta orain ahalegina eskatzen du berriro dena martxan jartzeak. Edozelan ere, jendea itzultzeko oso gogotsu sumatzen dut, baina edukiera mugekin 25 lagun elkar gaitezke, gehienez ere. Esan behar da aprobetxatzeko moduan zeuden produktuak bazkideei eskaini dizkiegula, prezio merkeagoan, gal ez zitezen. Hala, produktu berriak ekartzeko eskaerak egin ditugu".

"Azken asteetan, jendea elkarteetara itzultzeko gogoz sumatu dugu, askok galdetu digute noiz ireki ahal izango ote genuen". Edozein modutan ere, edukiera kontrolatzea eta segurtasun neurriak betetzea "ezinbestekotzat" jotzen dute presidentek, eta ohartarazi dute bazkide bakoitzaren ardura izango dela neurriak egoki betetzen direla ziurtatzea.

Jarduerak ere 02:00ak arte

Neurriak malgutzearen eraginez establezimenduek denbora gehiago eman ahalko dute zabalik, 00:00etan beharrean 02:00etan itxi ahal izango baitute; eta kultura, gizarte eta merkataritza jarduerak ere ordu horretarako eten beharko dute. Kasu horietan, edukiera %60ekoa izan daiteke, gehienegia jota ere. Taberna eta jatetxeak ere ordu berera arte egon ahalko dira zabalik, eta mahai bakoitzean sei pertsona egon ahalko dira –lehen, laukoa zen muga–. Kasu horretan, baina, barneko edukiera %50ean mantendu dute eta debekatuta jarraitzen du zutik edota barran kontsumitzeak. III. eta IV. taldeetan sailkatutako gaueko aisialdiko establezimenduek, aldiz, itxita jarraitzen dute; eta I. eta II. taldeetan sailkatutakoek ostalaritzaren neurri orokorrak bete behar dituzte.

Espazio handietan, 1.600 pertsonatik beherakoetan, barruan 600 pertsona elkartu ahal dira, gehienez ere, eta kanpoan 800. Aldiz, 1.600 eta 5.000 pertsona arteko espazioetan, barruan 800 lagun egoteko aukera dago, gehienez, eta kanpoan, osteratzen, 1.200. Azkenik, 5.000 pertsona baino gehiagoko esparruetan gehieneko edukiera ezin da %30 baino handiagoa izan.

"Badago antzekotasunik bi prozesuen artean"

DAVID FERNANDEZ KAZETARIA ETA CUP ALDERDIKO KIDEA

Bartzelonako Manlleu herriko 40 lagunek eta Bergarako Gure Eskuko kideek topaketa egingo dute bihar; harremanak estutu eta indarrak batzea dira helburuetako bi

Maialen Santos BERGARA

David Fernandez (Bartzelona, 1974) CUP alderdi politikoko kide eta Kataluniako Parlamentuko diputatu ohiak bideokonferentzia bidez parte hartuko du topaketan, eta autodeterminazio prozesuak "zein unetan dauden" izango du berbagai, besteak beste.

Hausnarketarako eguna izango da biharkoa...

Bi herriak anaitzeko eguna izango da; esperientzien elkartrukea. Erabakitze eskubidearen bultzatzen hausnartuko dugu. Egia da Kataluniako eta Euskal Herriko agertokiak ezberdinak direla, prozesu bakoitza ezberdina delako, baina, edozelan ere, badute antzekotasunik; biek dute zerikusia Espainiako Estatuarekin. Eztabaidarako tartea izango dugu bihar.

Zein ekarpen egingo duzu?

Hainbat gai jorratuko ditugu. Hasteko, herri bakoitza zein unetan dagoen aztertuko dugu: Katalunia, urriaren 1az geroztik nola dagoen; eta Euskal Herria, Europari lotutako bake prozesuari dagokionez eta baita Espainiari lotuta ere. Jarraian, Gure Esku egiten ari den ekarpenaz jardungo dugu, uste dugulako herri mugimenduek ekarpen handia egiten dutela erabakitze eskubidearen testuinguruan. Erreferenduma ere izango dugu berbagai, jakina; nire iritziz, Kataluniarendako irtenbide bakarra horixe da. Beste kontu bat da erreferenduma nolakoa den; alegia, hitzartutakoa edo alde bakarrekoa. Gurako nuke hitzartutakoa izatea, Eskoziakoa legez, baina zaila ikusten dut gure kasuan hala izatea.

Diozu autodeterminazio prozesuetan iraunkortasuna dela gakoa...

Hala da, bai. Errepresio jarraitua hiru urte eta erdiz jasaten egon ostean, azken hauteskundeetan argi ikusi zen Espainia-



David Fernandez, CUP alderdiko kidea. JORDI BORRAS

"ERREPRESIO KASUEN %0,27 KONPONTZEN DUTE INDULTUEK; AMNISTIAK, OSTERA, GUZTIAK"

ko Estatuaren eta bere errepre- sio estrategiaren porrota, eta hori bi borrokek emandako fruitua da. Autodeterminazio prozesuak oso luzeak dira, eta iraunkortasuna da izan dezake- gun erreminta onena. Kontzien-

te izan behar dugu ondo eta gaizki egindakoez, eta baita egiteke dagoenaz ere. Uste dut bidearen zati handi bat egin dugula, baina bidea luzea da. **Kataluniako buruzagi independentistak kalean dira eguaztena ezke- ro. Urrats bat al da?**

Indultuek errepresio kasuen %0,27 konpontzen dute soilik; eta amnistiak, ostera, guztiak. Beraz, oraindik asko dago egiteke. Halere, presoek espetxea uztea ospakizunerako motibo izan zen, duda barik. Hau lehen urratsa da; ez, ordea, azkena.

Bergarako ekitaldirako deia

Kataluniarrei harrera eta Askatasunaren Martxa egingo dute gaur, 19:15ean, Bergarako plazan. Bihar, 10:00etatik 11:30era bitartean kultura izango da protagonista kartzela zaharrean; eraldaketa soziala, Irizarren; eta politika, Seminarixoa. Hain zuzen, Seminarixoa hartuko du, 12:00etan, David Fernandez eta Mario Zubiagaren arteko solasaldia. Bazkaltzeko etaldia egingo dute, eta, amaitzeko, ekitaldi nagusia. Azken hori, Seminarioko patioan beharrean, udal pilotalekuan egingo dute, azkenean, eta sarrerak eskuragarri daude Pol-pol tabernan, hiru eurotan.

Bergarako Gure Eskuk adierazi du goizeko topaketetan 75 pertsona inguruk hartuko dutela parte eta bazkarian, ostera 120 bat lagunek. Herritarrei parte hartzeko dei egin diete.



Eskualdeko talde feministetako ordezkariek, astelehenean, Arrasaten. IRENE JAUREGI

Debagoieneko lehen topaketa feministak uztailen izango dira

Eskualdeko hainbat neska gazte elkartuko dira hilaren 2an, 3an eta 4an Arrasaten, indarrak batzea helburu

M.S. ARRASATE

Eskualdeko herrietako hainbat neska gazte Debagoieneko lehenengo topaketa feministak egingo dituzte, *SutikZutera* leloarekin. Hain zuzen, Arrasateko hainbat gunetan egingo dituzte ekitaldiak, eta, oraindik egitaraua zehaztu ez badute ere, aurreratu dute tailerrak, hitzaldiak, kontzertuak eta askotariko aisialdi aukerak izango dituztela.

"Euskal Herriko hainbat txokotan bezala, Debagoieneko herrietan ere orain dela hilabete batzuk hasi ginen neska gazteak elkartzen, elkarren artean saretzeko beharrak eraginda eta ditugun problematiken aurrean sortzen zaigun beharragatik", azaldu du haien bozeramaile Ane Etxabek. Eta hauxe gehitu du: "Argi dago elkar ezagutzen, saretzen, ikasten eta konspiratzen jarraitze-

ko espazioak behar ditugula". Hori dela eta, hilabeteetako lanaren eta hausnarketaren ostean, helburu horiek lortzeko bidean, eskualde mailako elkarretaratzea egitea pentsatu dute: "Elkar ezagutu eta elkarrekin egun batzuk igarotzeko".

Zapalkuntzari erantzuna

Uste dute sistemak eragiten dituen zapalkuntza eta desoreken artean, neska gazte bezala ere euren "problematika espe- zifikoa" dituztela: "Gure so- zializazio prozesuan parte har- tzen duten hainbat egitura sozialek sistema kapitalista heteropatriarkalaren errepro- dukzioaren norabidean eragiten dute; hala nola familiak, hez- kuntzak, prekarietateak, eder- tasun kanonek edota sexuali- tateak". Hala, "ikuspegi aska- tzaitetik" eragin gura dute: alegia, feminismotik.

Zibersegurtasunaren alorreko eskaintza indartu egingo dute

ZIUR Gipuzkoako Zibersegur- tasun Industrialeko Zentroak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak hitzarme- na sinatu dute formakuntza "berrituak" eta "indartuak" es- kaintzeko. Eredu duala bultzatuko dute, eta baita ikastaroak eta topaketak antolatu ere.

2017an hasi zen Mondragon Unibertsitatea Zibersegurtasun-

neko Masterra eskaintzen. Orain, baina, eskaintza indartu egingo dutela azaldu du Carlos Garcia Goi Eskola Politekniko-ko zuzendariak: "Eskaintzen dugun unibertsitate master berrian zibersegurtasuna lantzen dugu, eta profesionalei zuzendutako ikastaroetan ere gora egin dute gai honi lotutako ikastaroek. Hala, talentu gaztea zein profesio- nalak espezializatzea eta en- presen eta gizartearen erronkei aurre egitea izango dira orain ditugun helburuak".

Etorkizuneko Gipuzkoaz hausnartzeko geldialdia

Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako 'Etorkizuna eraikiz kapsula' Arrasaten izan da astelehen honetan. Herritarrek eta erakundeak gerturatu gura dituzte, hala, etorkizuneko lurraldea eraikitzeke. Arrasatearrek egin dituzte ekarpenak dagoeneko

Maialen Santos ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak abiarazitako *Etorkizuna eraikiz kapsula* izeneko dinamika parte-hartzaileak Arrasaten egin du lehen geldialdia, astelehen honetan. Dinamikaren asmoa da herritarrek 2040. urterako nolako lurraldea nahi duten jakitea; izan ere, erakundeak eta herritarren artean "urruntze prozesu bat" gertatu delakoan daude agintariak. Eider Mendoza Gipuzkoako Aldundiko bozeramaileak adierazi du izurrite garai honetan urruntzea "handitu" egin dela: "Eta guk nahi dugu jakin zer den gipuzkoarrek proposatzen dutena etorkizunari begira".



Maria Ubarretxena eta Eider Mendoza, astelehenean, Arrasaten. HASIER LARREA

Hain justu, etorkizuneko erronkak identifikatu eta proposamenak proiektuetan gauzatu ditu Aldundiak. Proiektu horiek ikusgai daude kapsulan, baita gaur egungo Gipuzkoak euskararen, ekonomiaren edota berdintasunaren arloan zein ezaugarri betetzen dituen ere. Horietatik tiraka lortu nahi dute Gipuzkoa desberdinkeria gutxien daukan lurraldea izatea. "Zehazki, herritarrek zein ekarpen egin nahi duten jakin gura dugu; alegia, herritarrek hona hurbildu daitezten ikus-terea gaur egungo lurraldearen argazkia zein den, eta etorkizunera begira guk zer proposatzen dugun. Horren arabera, herritarrek gogoeta egin dezaten da helburua".

Jolas interaktiboa proposamen

Kapsulan sartzen direnei jolas interaktiboa planteatzen die Foru Aldundiak. Alde batetik, datuak eskaintzen dizkie, Gipuzkoak aurre begira zein posizionamendu daukan adierazteko. Bestetik, etorkizuneko lehentasunei erantzuteko erreferentziazko zentroak zeintzuk

diren daude zerrendatuta; tartean, ArantzazuLab. Eta azkenik, herritarrek zein balio mantendu nahi duten edota zein hobekuntza sumatzen duten faltan ere proposatu dezakete, ariketa bikoitzaren bitartez: ekarpenen oharra kutxetan sartuta eta ereingarria den papera etxera eramanda.

Lankidetzak, "identitatean"

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak adierazi du pozgarria dela arrasatearrek kapsularen esperientzia probatzen lehenak izatea: "Eredu kolaboratiboa, eraikitzailea eta elkarlanean oinarritutako lankidetzak arrasatearren identitatean dago". Hala, herritarren parte hartzearen garrantziaz mintzatu zen: "Oso garrantzitsua da bakoitzak bere iritzia ematea, ez da ezer kostatzen".

Beasain izan zen, eguaztenean, *Etorkizuna eraikiz kapsula*-ren hurrengo geltokia. Edozelan ere, azaldu dute egitasmoak uztailaren 8ra arte bidaiatuko duela lurraldean, herriz herri.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, beheak
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

'Elikabira' jardunaldia, ekoizleen lana ikusteko

D2030 garapen iraunkorrerako sareak eta Ereindajan egitasmoak ibarreko bost etxaldetara antolatu dituzte bisitak domeka goizerako; jardunaldi ibiltariko parte-hartzaileek tokiko produktuak egiteko prozesuak nolakoak diren frogatuko dute

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Orain arte baserrietara "bisita solteak" antolatu dituen arren, lehen sektoreko lantokiak eza-gutarazteko "egitarau oso bat" atera du lehen aldiz, D2030ekin elkarlanean, Ereindajan ekimenak. Hala, hilaren 27an, 10:00etatik 13:00etara, aurrez izena emandako hamabost kidez osatutako bost talde abiatuko dira etxaldeetara bertako ekoizleen azalpenak entzutera.

Talde bakoitzak baserri baka-rra bisitatuko du; izena emate-rakoan gehien interesatu zaiena, hain zuzen. Parte-hartzaileek Aramaioko Atxineta eta Iturrieta, Arrasateko Errastiko, Aretxabaletako Mendibitzu eta Bergarako Ziarreta baserrien artean aukeratu ahal izan dute. Egoitza bakoitzeko langileek espezializatuta dauden arloen gaineko xehetasunak emango dituzte. Zehazki, frutagintza eta abeltzaintza izango dituzte hizpide Atxinetan, frutagintza eta sagardoa Iturrietan, ogia Errastikon, abeltzaintza Mendibitzun eta baratzea Ziarretan.

Lehen sektorea indartzeko eta ekoizleak autonomoagoak izateko bidean, premiazkotzat ikusten du Ereindajaneke Ainhua Narbaizak kontsumitzaileengan halako irteerak sustatzea: "Ba-



Atxineta baserriko ekoizle bat ahabiak jasotzen, marmelada egiteko. FURGOBIDAIAK

KONTSUMITZAILEEN ETA EKOIZLEEN ARTEKO SOKAK ESTUTU NAHI DITUZTE BISITA IBILTARIEKIN

serrietako bizipenak kontzientzia piztuko die bisitariei, produktu- en atzean ze lan dagoen ikusi eta jakiak dastatzeaz gain, ustia- ke- ta ekologikoaren aldeko apustua zergatik egiten duten jakingo baitute".

Iparraldea iparrorratz

Antzerako ekimenak Ipar Eus- kal Herrian "ohikoagoak" dire- la dio Narbaizak, ekoizleen artean sareteko "apustu indartsuak" egiten dituztela iritzita. Eredu horri jarraitzea da Ereindajane- en asmoa: "Gure elikadura ezagut- zen ez ditugun eskuetan delegatze- ri uzteko". Ideia horren bueltan egin zuten, ekainaren 2an, jan- toki kolektibo-ri buruzko hitzal- dia Elgetan, *Elikabira*-ren baitan eta bertako guraso taldearekin koordinatuta. Udazkenean ere jarraituko dute dinamikarekin.



Iban Arantzabal eta Monika Belastegi, Goienaren batzar orokorrean. XABI URZELAI

Gutxiagorekin gehiago eginda, indartuta irten da Goiena

Pandemiagatik "urte gogorra eta erronkaz betetakoa" izan dela aipatu dute bazkideek batzar orokorrean

H.L. DEBAGOIENA

Arrasateko Kulturategi areto nagusian urteroko batzar oro- korra egin du Goiena Komuni- kazio Taldeak, martitzenean. Publizitatean beherakada jasan duen arren, "lan handia eginez eta bestelako zerbitzuak eskainiz" lortu du kooperatibak ekonomi- koki galera gabeko urtea izatea, baita lantaldeari eutsi ahal izate- ere. Osasun larrialdiaren hasieran oinarritzko zerbitzu izendatu zituzten agintarie- tokiko komunikabideak, eta herritarren informazio beharrak asetzeko lan gehiago egin dute Goienan harrezkero.

Monika Belastegi presidentek adierazi du antolaketa-lanean "ahalegina biderkatzea, hau da, langileen partetik malgutasunez jokatzeko" eskatu duela 2020ak, eta gaineratu koronabirusa pro- tagonista izan den urtean "in- dertuta" irten dela Goiena. Hori horrela, bazkideek 2020ko kon- tuak onartu eta 2021eko aurre- kontuaren oniritzia eman dute.

Gorakada audientzietan

Hala, audientzietan emaitza po- sitiboak izan ditu euskarri guz- tietan. *Goiena.eus* atarian %55 hazi da bisita kopurua, egunean 12.000 bisita jasoz. CIES erakun- deak inoizko datu onenak era- kutsi ditu telebistako audientzia- ri dagokionez; eskualdean 8.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista, eta, orotara, 11.000 lagunek egiten dute bat Goiena telebistarekin. Pandemia egoeran ere egubakoitzero argi-

taratu dituzte, kale egin barik, *Puntua*, GOIENA aldizkaria eta *Ttap*. Eta bestelako proiektuetan ere murgildu da Goiena; *Hi gaz- te!* dinamikan, esaterako.

Lanak, aurreratuta

Nolanahi ere, Debagoieneko gainontzeko enpresa edo komer- tzioek bezala, Goienak ere su- fritu egin du azken urtean. Ha- lere, datorren urterako lan batzuk aurreratu dituztela nabarmendu du Iban Arantzabal zuzendari nagusiak: "Berrikuntzari dago- kionez, aplikazio berria kalean dugu jada, eta Goienakide figu- ra ere indartuko dugu, besteak beste, zozketa eta abantailen bitartez".

Aurtengo urtea ere erraza izan- go ez dela jakin arren, ekonomiak hobera egingo duelakoan dago Arantzabal, eta zerbitzuak eta publizitatea igo egingo direla espero du: "Ikusi dugu komer- tzioak eta industria gogoz dau- dela, esateko asko daukatela, eta gu ondoan izango gaituzte".

"Lantalde indartsua"

Datu positibo horiek guztiak erdiesteko Goienako langileen elkarlanerako jarrierari balioa eman nahi izan dio Belastegik. Era berean, lantaldearen berran- tolaketa egoerara moldatzeko garrantzitsua izan dela aipatu du, besteak beste, "gaueko ha- marrak arteko txandak" jarrita. Egutero egiten den tokiko ka- zetaritzak fruituak eman ditu, beste behin, osasun krisak mar- katutako urte gorabeheratsuan.



GORKA LETE
MENDIBITZU BASERRIA

"Behi, ardi eta pottokekin jarduten dugu, batez ere, eta haragia eta gazta egin. Gero, etxetik eta Ereindajaneke denda txikietan saltzen dugu".



NAIARA URIARTE
ERRASTIKO BASERRIA

"2019an hasi ginen ogia egiten, eta oso harrera ona gabiltza jasotzen; igartzen da, gero eta gehiago, kalitatezko elikagaiak nahi dituela jendeak".



JUANJO PECIÑA
ITURRIETA SAGARDOTEGIA

"Aurten sagastiek uzta handia emango dutelakoan gaude. Horretarako, prozesu guztia eraman behar da ganoraz. Horixe ikusiko dute bisitariek".



Goiena mediako
bideo eta argazki guztiak
deskargatzeko gertu.



Goienakide txartel
digitala: deskontuak
Debagoieneko
komertzioetan.



Gertuko informazioa eta
eduki pertsonalizatua,
sortu ahala.



Goiena telebista
zuzenean,
nahiz nahieran.



'Goiena' aldizkariaren
zenbaki guztiak eskura,
inon baino lehenago.



Goiena app berria.
Leku bakarrean, dena.

Eskaneatu qr-a, edo:
www.labur.eus/goiena_aplikazioa



Goienakide izatearen
abantailak eta
zozketak.

9
herri

goienaOkmgida™

Debagoien osoko
'Goiena Okm Gida'.



'Puntua' aldizkariaren
zenbaki guztiak
eskura, inon baino
lehenago.

goiena™
Zu hemen zaude.



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

'Tekno'

Irakaskuntza asko aldatu da nire ikasle garaietatik. Egutero ikusteko aukera dut zuzenean nire seme-alaben bitartez eta baita nire lantegira hurbiltzen diren hainbat ikasleren bidez. Gauza asko hobetu dira, zalantzarik gabe. Horien artean, ahozko komunikaziorako abileziak –aurkezpenak egiteko trebezia asko lantzen dute gazteek–, abilezia digitalak –ordenagailuak guztiz menperatzen dituzte– eta talde-lanean proiektuak aurrera eramateko garatzen dituzten gaitasunak azpimarratuko nituzke.

Badaude beste gai batzuk, aldiz, ez direla hainbeste hobetu. Horien artean, bi aipatuko nituzke: ingelesa eta teknologia. Ingelesari dagokionez, harrigarria da txiki-txikitatik –aurre-eskolatik– ingelesa ikasten egon arren, oso gutxi direla benetan ingelesa menperatuz enpresara iristen diren pertsonak.

Teknologiari dagokionez ere espero zitekeena baino gutxiago aurreratu dugula uste dut; batez ere, *tekno* txikienei emateko orduan. Harrigarria iruditzen zait gaur egun oraindik zenbait kasutan *tekno* zuri-beltzeko fotokopien bidez erakustea, antzinako makina eta erreminta zaharren izenak buruz ikasteko helburuarekin.

Egia da robotika ikasgaia ere aukeran dutela ikasle askok –zoriontzekoa, benetan, Lego roboten txapelketan zenbait ikastetxe, irakasle eta ikasle egiten ari diren lan bikaina–, baina garrantzitsua iruditzen zait gazteek teknologiarekin ikasgai moduan duten lehen esperientziak ahalik eta erakargarrien, erabilgarrien eta interesgarrien egitea, oso garrantzitsua izan baitaiteke etorkizunean egin dezaketen aukeretan.

Zenbait teknologiarekin lotutako profesionalen gabezia larria dugu enpresa askok gure inguruan. Behar-beharrezkoa dugu gazteak ikasketa teknikoetara erakartzea, eta, horretarako, *tekno* ikasgaia funtsezkoa izan daiteke, zentzu batean edo bestean, eta, beraz, jarrai dezagun hobetzen guztion laguntzarekin eta guztion onerako.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Maskulinitateak errenta aitortpena arintzen du

JUNE FERNANDEZ

'TTAP' - EN ARGITARATUA

"Zerga-sistemari buruzko erreportaje feminista bat idatziko zenuke?", proposatu didate *Pikara magazine*-ko editoreek. Zur eta lur geratu naiz, baina erronka ederra iruditu zait. [...]

Erreportajea ekonomia feministari buruzko paperezko monografiko batean argitaratuko da laster. Horretan, instituzioetan zein akademian lan egiten duten feministen laguntzarekin azaldu dut tributuen genero analisiak azaleratzen dituzten arrakalak. [...]

Paloma de Villota Ekonomia Aplikatuko irakasleak frogatu du PFEZaren murrizpen, hobari eta kenkari fiskal gehienek, bai Estatuko lurralde fiskal komunean, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, "gizonen aldeko genero-joera eztabaidaezina" dutela. Hala da tributua modu androzentrikoan diseinatuta dagoelako, ez baititu kontuan hartzen gizonen eta emakumeen arteko alde sozioekonomikoak. [...]

Diru-sarreraren eskalan gora egin ahala, gizonen nagusitasuna gero eta nabarmenagoa da. Ondorioz, gizonak dira jarduera ekonomiko

handiak egiten dituztenak –esaterako, higiezinak erostea–, eta, beraz, haien kenkariak ere mamitsuagoak dira.

Horrez gain, Espainiako zerga sistemak 3.400 euroko hobaria ematen die errenta aitortpena batera aurkezten duten ezkontideei. [...]

Txanponaren beste alde da guraso bakarreko familien elkarteek salatzen duten presio fiskala. Zerga-sistemak ez du kontuan hartzen ama bakarrek errenta txikiagoa dutela etxeko gastuei aurre egiteko... [...] De Villotak ondorioztatu du zerga-sistemak heterosexismoarekiko disidentzia zigortzen duela. Zer iruditzen?

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Inguruko eragileekin elkarlanean jardungo dugu"

FRAN APEZETXEA ARANTZAZUKO ATERPETXEKO KOORDINATZAILEA

Maidar Arregi OÑATI
Ekainaren 1az geroztik irekita dago Arantzazuko aterpetxea. Suspertu enpresak kudeatuko du aurrerantz eta gizarteratzea eta enpleguak sortzea ditu helburu. **Ateak ireki berri, zein da hasiera batean jasotako inpresioa?** Pixkanaka, instalazioa gure egiten hasiak gara eta ilusio ikaragarria daukagu. Uda heldu da, eta banakako nahiz talde erreserbak eta baita ere familiako eskaerak hasi gara jasotzen. Uztailearen 1etik aurrera egunero irekiko dugu harrera zerbitzua, 13:00etatik 19:00etara bitartean. Mugimendu gehiago igarriko dugula uste dugu. **Gizarte taldea zaretela diozu.** Halaxe da. Enplegua sortzea eta inguruko eragileekin lan egitea dugu xede. Suspertu da enpresaren izena, eta laneratzeko helburua du. Hau da, laneratzeko zailtasuna dutenei laguntza ematea eta elkarrekin lan egitea dugu



Fran Apezetxea, aterpetxearen logela batean. MAIDAR ARREGI

helburu. Adibidez, egoera zaurgarrian dauden emakumei edo epe luzez langabe daudenei lana ematea; ondoren, irakasteko eta aurrera egiteko bidea elkarrekin egiteko.

Ateri sarea sortu zenuten enplegua sortzeko. Aipatu ditudan helburuak betetzeko orain dela hamabost urte sortu genuen Ateri sarea. Aterpetxeen eta egoitzen sarea da, eta alojamenduak eta

zerbitzu turistikoak kudeatzen ditugu: Bilbon, Lekeition, Arraten... Hamabi, guztira. Hirugarren sektoreko ekimen bat gara eta gure helburua ez da etekin ekonomikoa ateratzea, enplegua sortzea baizik. **Esperientzia handia duzue alor honetan.** Egia esan, bai. Baina esan beharra daukat pandemiaren ondorioz gure egoera ere okertu egin dela. 2020ko martxoan 100 langile inguru ginen, eta orain 70 gara. Aurrera ateratzeko proiektu berriak sortu behar dugula argi dugu, eta Gipuzkoan garatu nahi dugu. **Sinergiak aprobetxatuta hainbat sektoreekin elkarlanean jardutea asmoa duzue.** Gure lanaren mamia hori da. Leku batera iritsi, inguruko eragileak ezagutu eta haiekin lan egitea. Kasu honetan, Arantzazuko Parketxearekin harreman oso ona daukagu eta hezkuntza programa bat ere sortu dugu. Arantzazu Lab-en laguntza nabarmena izan dugu, eta haiekin lanean jarduteko asmoa dugu. Oraindik denborarik ez dugu izan inguruko eragileekin egoteko, baina asmoa badaukagu. Ezagutu, konfiantza sortu eta denon onurarako gauzak sortu eta

ondoren elkarrekin adostea da gure prozesura. **Elkarlanean zerbitzuak eskaintzea, beraz.** Hori da. Aterpetxeak taldeak erakarri nahi ditu enplegu egonkorak sortzeko. Horregatik, heziketa zentroak erakartzeko jada sortu dugu plan bat Parketxearekin. Bestetik, familia edo talde bat etortzen bada, hemengo ostalaritzaren eskaintza ere ezagutaraziko genioke. Izan ere, taldeka lan egin gura dugu, nahiz eta banaka eta familiak ere etorriko diren. **Zenbat lagunendako lo-lekua dago?** Sei logela ditugu: lau, hamabi pertsonarendako; eta bi, lau lagunendako. Azken hauek familiei bideratutakoak dira. Horrez gain, egongela eta jantoki handia ditugu. Baita sukalde libre bat ere. Baina, 56 lagunendako lekua egon arren aterpetxean, COVID-19aren osasun protokoloek jarraiki, 28 lagunendako lekua dugu, oraingoz. **Erreserba egiteko aukera beraz, zabalik.** Informazioa eta erreserbak, www.arantzazuaterpetxea.com helbidean. Bestela, mezua arantzazu@ateri.net-era bidali edo telefonoz deitu dezakete aurre-erreserba egin gura dutenek: 943 78 05 00.

ITURRI ONETIK

Berriro Musika Hamabostaldian Arantzazu
Astelenean aurkeztuko dute Donostiako Musika Hamabostaldia. Abuztuaren 1etik 27ra izango da aurten. Iaz pandemiaren eraginez baztertuta geratutako zenbait agertoki berreskuratu dituzte; Arantzazuko basilika, adibidez. Gainera, berriz ere nazioarteko orkestrak etorriko dira jaialdira; Budapest Festival Orchestra, esaterako. Azkenekoz Musika Hamabostaldian, 2019an, Donostiako Orfeoia izan zen Arantzazun; 2018an, oster, Kukai dantza taldea *Adio* ikuskizunarekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-06-24

Etxaluze zaharren egoitza berria Arrasaten
Arrasateko erretiratuaren egoitza berria, Etxaluze, inauguratu zuten 2010eko San Juan egunean, herriaren egun nagusian. Eraikin singularra: geotermia erabiltzen duena; hau da, lurpeko tenperatura aprobetxatzen duena hoztu edo berotzeko. Arrasateko jaietan 80 urtetik gorako mondragoetarrei egin ohi zaien omenaldia aprobetxatu zuten eraikina inauguratzeko. Uztailean hasi ziren egunero erabiltzen.



HAU BE BADOGU!

Tubacex-eko langileei babesa sarean
Greba luzearen ostean, manifestazioa egin dute asteon. Hala, *#Tubacex* eta *#TubacexBorrokan* traolak joera bilakatu dira. *@oiakuear*: "Arrigorriagan harrera beroa egin diegu grebalariei. Basauriko bidea hartu dute Bilborako norabidean". *@InakiCabeza*: "Hemen jarraitzen dugu. Kaleratuko zaituztegu!!! Itun bat proposatzen dizuet, langileok barrura eta zuzendaritza eta arratoiak kalera!!!". *@AimarRahim*: "Justizia langileon eskuetan dago, ez beste inon! Atzo gaur bezala, borroka da bide bakarra!".

Eneko Azurmendi ARRASATE

David Gil arrasatearrak metal detektagailu zahar bat zeukan etxean eta, jakin-minak jota, Aitzol Azkarraga eta Hodei Villar lagunekin elkartu zen, mendira joan eta detektagailuarekin zerbait aurkitzeko asmotan. "Gerra garaiko askotariko materialak aurkitu genituen, eta hasieran ez genuen jakin material horrekin guztiarekin zer egin", adierazi du Azkarragak. "Beraz, elkarte bat sortzea erabaki genuen, eta, tramite guztiak egin ostean, erregistratu egin ginen Donostian".

2018ko uztailan sortu zuten elkarte, aurkitutako material horiek jaso, gorde eta katalogatzeko asmoarekin. "Horrez gain, gauzak ondo egin gura izan genituen, protokolo guztiak jakiteko eta bilaketak non eta nola egin genitzakeen jakiteko. Bestalde, obus bat aurkitzerakoan, adibidez, Ertzaintzara deitu behar da eta ezin da manipulatu. Gauza horiek guztiak jakitea ezinbestekoa da horrelako lanak egiteko".

Bilaketa gehiago egin ahala, geroz eta gauza gehiago aurkitzen joan ziren, eta bakoitzak detektagailu bat erosi zuen, "modu serioagoan" lanean hasteko. "Izan ere, Davidek zeukan detektagailua nahiko txarra zen. Beraz, diru pila bat aurreztu genuen, taldea sortu eta urtebetera detektagailu on bat erosteko. Egia esan, oraingoekin askoz ere hobeto aurkitzen dira materialak", dio Azkarragak.

Gaur egun, hamar bazkide dira

Hasiera hartan hiru kide ziren arren, denborak aurrera egin ahala jende gehiago batzen joan zaie taldera eta gaur egun, hamar kidek osatzen dute Oroimen Detekzio Taldea. "Dena den, bazkide ez diren beste batzuk ere etortzen dira, batzuetan, laguntzera, gustatu egiten zaie-lako". Gehienbat, arrasatearrak dira, baina Bergarako, Usurbilgo, Donostiako eta Bilboko jendea ere badago, Azkarragak azaldu duenez.

Aner Narvaez da elkarte sortu eta segidan batu zitzaientzako bat, Azkarragaren lehengusua. "Mendian buelta bat ematen ari nintzela, lehengusua aurkitu nuen, detektagailu bat eskuetan zuela, Kurtzetxiki inguruan. Zertan ari zen galdetu nion, eta niri ere jakin-mina piztu zidan.



David Gil, Aner Narvaez eta Aitzol Azkarraga, orain arte aurkitu izan duten askotariko materialarekin, lokalean. HASIER LARREA

Lurpetik azalera, historia lantzeko

Arrasateko Oroimen Detekzio Taldeak hiru urte daramatza batez ere gerra garaikoak diren eta lurpean ezkutatuta geratu izan diren askotariko materialak berreskuratzeke lanean; tartean, txanponak, insigniak eta animalien tresnak ere aurkitu izan dituzte

Egiten zutena interesgarria iruditu zitzaidan eta taldera batu nintzen", adierazi du.

Bakoitzaren ikasketa eta lanbideari dagokionez, berriz, askotariko profilak dituzte. "Historiari buruzko ikasketarik ez dugu. Ia guztiok industrian egiten dugu lan, baina asko gustatzen zaigu historia, eta, zaletasun moduan hasi ostean, apurka-apurka aditu bihurtzen goaz. Inguruan gertatu izan diren gauzak, jende askok ez dakizkienak eta inon idatzita ez daudenak, jakiten ditugu zaletasun honi esker", azpimarratu du Azkarragak.

Ondarea berreskuratzen ari dira

Esan moduan, askotariko materialak aurkitu izan dituzte hiru urte hauetan. "Gehienbat, munizioak, jaurtigaiak eta bestelakoak izaten dira, dagoeneko

erabilia daudenak. Munizioak, gainera, informazio asko ematen du, markaren arabera jakin dezakegulako ze fusil zen eta ze bandotakoa. Horrez gain, insigniak, txanponak, uniformearen botoiak, sukaldeko tresnak, animalien ferrak, zintzarriak, eta abar ere aurkitu izan ditugu", dio Azkarragak.

Era berean, "balio handia" ematen diote ondare hori guztia berreskuratzeari eta jasotzeari. "Garrantzitsua da material horiek berreskuratzea, katalogatzea eta ikertzea. Gainera, orain aprobetxatu behar dugu, jasotzeko

2022AN ERAKUSKETA BAT EGIN GURA DUTE, ORAIN ARTE AURKITU DUTENA HERRITARREI ERAKUSTEKO ASMOZ

aukera daukagula. Izan ere, 200 urte baino gehiagoko materialak ezin dira jaso, legeak hala dioelako. Horretarako, arkeologia arloko profesionalak beharko genituzke. Bestalde, interes kultural gisa izendatutako gunetatik kilometro batera baino gutxiagora ezin gara hurbildu halako bilaketak egitera".

Ilusio berezia egingo liekeena da, bai Azkarragak eta baita Narvaezek onartu dutenez, gudar baten gorpua aurkitzea. "Gorpu asko daude desagertuta oraindik eta lorpen hunkigarria izango litzateke gorpu horietako bat aurkitu eta haien senideei entregatu ahal izatea. Egiten ari garen lanaren nolabaiteko aitor-tza izango litzateke, zerbaitetarako balio duela frogatzea", dio Narvaezek. "Oso polita eta hunkigarria izango litzateke hori, jende asko dagoelako orain-

dik senideen berririk ez duena", gaineratu du Azkarragak.

Arrasaten ez ezik, inguruko herri askotan egiten dituzte bilaketak. "Gehienbat, Arrasateren mugakide diren herrietan ibili izan gara orain arte, Elgetan, Bergaran edota Aramaion. Bestalde, Usurbileko laguna inguru hartan ari da lanean eta Legutien ere ibili izan gara, eraso bortitzenak han izan zirelako".

Horrekin lotuta, Arrasate lubakiz inguratuta dagoela aitortu du Azkarragak. "Elgetako fronteak erresistentzia handia egin zuen, eta, horren ondorioz, Arrasaten lubaki asko daude: Udalatx inguruan, Anporretan, Murun, Kurtzetxikin eta baita erdigunean ere; Santa Barbaran, esaterako".

Obus bat aurkitzean, zer egin?

Azkarragak azaldu duenez, obus bat aurkitzean Ertzaintzara deitu behar da, abisua emateko. "Ertzaintza etortzen denean, perimetralki itxi egiten dute, inguruan inor ez dagoela frogatu eta leherrarazteko. Inguruan etxebizitzak baldin badaude, orde, eraman egiten dute. Bilaketa hauek egiten hasi ginean, izan genuen kasu bat. Udaltzaingoari deitu genion eta haiek deitu zieten Ertzaintzari. Horren ondorioz ere konturatu ginen gauzak ondo egitea komeni zela, eta horregatik ere erabaki genuen elkarte sortzea".

Mapa birtuala eta erakusketa

Aurrera begira, mapa birtual bat egiteko asmoa daukate, eta horretan dihardute lanean egun. "Gerra zibilean egon ziren lubaki eta kokalekuak ikusteko aukera eskainiko du mapa horrek. Lubaki bakoitzaren gainean klikatu ostean, argazkiak eta azalpenak irakurri ahal izango dira, ze bandotako jendea egon zen, ze urtetan eta ze material aurkitu izan dugun leku horietan". Horretarako, webgune bat sortuko dute edo, bestela, Intxorta 1937 kultur elkartearen webgunea aprobetxatuko dute.

Horrekin batera, asmoa da datorren urtean erakusketa bat egitea, orain arte aurkitu izan duten material guztia erakutsiz eta informazio osagarria eskainiz. "Bestalde, interesgarriak diren lekuetan kartel informatibo batzuk ipintzea edota auzolanean lubaki bat atontzea ere estatutuko litzaziguke laster".

Jaurtigaiaik aurkitzen dituzte gehien

Orain arte, jaurtigaiaik aurkitu izan dituzte, gehienbat. Argazkikoak, esaterako, Lebel fusilaren jaurtigaiaik dira, Gesalibar auzoan aurkitu dituztenak. Horrez gain, Mauser C96 pistolaren kargatzailea, 76.5 milimetroko obus apurtzailea, 75 milimetroko obus jaurtigai italiarrak eta 75 milimetroko obus jaurtigai nazionala ere aurkitu dituzte.



Lebel fusilaren munizioa, kaxa batean jasota. OROIMEN DETEKZIO TALDEA

Animaliek erabiltzen duten materiala

Gerra garaiko materiala ez ezik, askotariko materiala ere aurkitu izan dute. Esaterako, animaliek erabiltzen dituzten materialak: ferrak, zintzarriak, eta abar. Argazkian agertzen direnak idien ferrak dira. Horrez gain, kaskabiloak ere aurkitu izan dituzte. "Hauak aurkitzeko ez dago leku zehatzik. Izan ere, mendian, edozein lekutan aurkitu daitezke".



Kaskabiloa, zintzarriak eta idien ferrak. O.D.T.

Sukaldeko askotariko tresnak

Sukaldeko askotariko tresnak ere aurkitu izan dituzte: koilarak, sardexkak, lapikoak eta bestelakoak. Argazkian ikusten dena lapiko bat da, bi tiro dituen, eta, Azkarragak azaldu duenez, zortzi tiro dituen lapiko bat ere badute.

Horrez gain, aizkorak, labanak eta supiztekoak ere aurkitu izan dituzte, baita harmonika bat ere.



Bi tiroekin zulatuta dagoen lapiko bat eta sukaldeko bestelako tresnak. O.D.T.

Txanponak, intsigniak, eta abar

Azkenik, intsigniak, txanponak, uniformeen botoiak eta bestelakoak ere aurkitu izan dituzte egindako bilaketetan, baita gerrikoen euskarriak ere. "Kartutxera eta pistolen zorroak eramateko gerrikoen hebillak edo euskarriak dira. Esaterako, Eusko Gudarosteko bat aurkitu genuen behin, 'Lauak bat' armarriarekin", azpimarratu du Azkarragak.



Txanponak, intsigniak, uniformeen botoiak, eta abar. HASIER LARREA

NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Ikasi

Ikasi nuen galtzerdiak binaka tolesten eta biltzen. Ikasi dut *Iruñea* nola deklinatu behar den, eta ikasi dut ondo deklinatzen ez dutenei muturrik ez jartzen. Ikasi nuen gidatzen, eta ikasi nuen aparkatzen: albo batera, bestera, eta muturrez, eta ipurdiz. Ikasi dut urduri egoten, eta ikasi dut urduri nagoenean disimulatzen. Ikasi dut hitz egiterakoan eskuak gehiegi ez mugitzen. Ikasi dut haserretutakoan arnasa hirutan hartu eta hirutan botatzen, eta ikasi dut batzuetan arnasa hartzearekin batera haserretzen. Ikasi dut batzuekin alferrik dela ikasi duzula esatea, eta beste batzuekin alferrik dela ikasi dutela sinestea. Ikasi dut mendira eskularruak beti eraman behar direla, eta ikasi nuen hobe dela gelditu gabe apurka igotzea aldapak.

Ikastekoak ere bertan izan, eta urrutira joan beharrik ez. Bide ederra baita ikastea, baina nekeza: basamortua igaro behar du ikasten ari denak; oinutsik eta eguzkipean. Eta onartu behar du pertsonak ez dakiela uste zuen beste, eta ez dela uste zuen bezain abila. Eta hori oraindik ez dugu ikasi.

Harremanek 1.853,90 euro batu ditu lbai-arteren tonbolari esker

Sari berezia Sole lbabe Ortuetak jaso du, eta 300 euroko bonua irabazi, lbai-arteren dendetan gastatzeko

E.A. ARRASATE

"Aurten, pandemia dela eta, lbai-arteren lankidetzaz ezin ho-bearekin soilik izan da posible tonbola berriz jartzea. Horrekin batera, baita Harreman Denda-ko bidezko merkataritzako produktuen salmenta ere", azaldu dute Harremaneko ordezkariak. Jendearen parte-hartzea "ikusgarria" izan zela nabarmendu du gobernuz kanpoko erakundeak, eta batutako diru kopurua, 1.853,90 euro. "Diru kopuru hori Ankur harrera-etxera bidaliko dugu. Han, Mumbai hiriko eta

Indiako kale eta auzo txabole-tako 200 neska jasotzen dituzte eta bertan etorkizun duina, hezkuntza, janaria, osasuna, zainketa orokorra eskaintzen zaie", gaineratu dute.

Harremanek eskerrak eman dizkie arrasatearrei emandako laguntzagatik. "Aldi berean, mundu duinago baten alde lanean jarraitzea animatzen ditugu. Denok pozik sentitu beharko ginatke txartelak erosiz egin-dako ekarpenekin, horrela jende askoren bizitza duina izan dezaten laguntzen diegu".

OHARRAK

Ignaziotar bidearen lehen etapa

Sasoibideren ikasturte bukaerako azken erronka gisa, Loiolatik Zumarragarako bidea egingo dute, oinez, Antioko ermitaraino, uztailaren 1ean. Hala, 08:30ean aterako da autobusa Garibaitik, Azpeitira joateko eta ibilbidea han hasteko.

Industria ondareaz eta Vasco-Navarro trenaz

Bihar, zapatua, bisita gidatua egingo dute, 10:30ean, Herriko Plazan. "1919an, Vasco Navarro trena iritsi zen Arrasatera, eta ekarri zuen bidaiarien nola merkantzien trafikoa haztea. Mekolalde eta Arrasate artean tren misto bi ari ziren; merkatu egunetan Gasteizeraino heltzen ziren". Gaur da izena emateko azken eguna, 695 75 34 30 telefono zenbakira deituta.



Jaiei hasiera emateko txupinazoa, San Juan bezperako eguerdian, Monteazpiko terrazan. IRENE JAUREGI



Rebel Noise taldeko musikariak Monteazpiko oholtzan, jo eta su. UXUE IGARTZA

Hasiera euritsuak gorabeherak eragin ditu sanjuanetako ekintzetan

Nahiz eta txosnaguneko egitaraua, kalejirak eta itzulera ekitaldia normaltasunez egin diren, San Juan egun bezperako zaparradek errementari dantzarik eta San Juan surik gabe utzi ditu arrasatearrak. Gaur eta bihar gozamina nagusitzea espero da

Hasier Larrea ARRASATE

Azken orduan bertan behera gelditu zen, herenegun, San Juan jaietan herritarrek esku zabalik hartzen duten Herriko Plazako gaueko ekitaldia. Euria barra-barra egin zuen egun osoan, eta, lurra bustita zegoenez, musikariak eta dantzariak emanaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Hala, errementari dantzak, San Juan suak eta *San Juan* ereserkiak datorren urtera arte itxaron beharko dute. Goiena telebistak udaletxetik zuzenean emititutako saio berezian, Ene-ritz Urrutia dantzariak aipatu zuen ez zuela gogoratzen euria

egin zueneko San Juan bezperarik: "Kontrara, ohikoagoa izan ohi da 30 gradu daudela dantza-tzea suaren aurrean". Dena den, atzoko Monterongo itzulera ekitaldian bezperako gorputz txarra berdintzeko aukera izan zuten dantzariak eta musikariak.

Monteazpiko egitaraua aurrea ateratzea ere lortu dute, gainera. Gorka Etxabek, Txosna Batzordeko kideak, jai hasierako espektatibak bete egin zirela nabarmendu du: "Rebel Noise eta LC taldeek kontzertu aparta eskaini zuten; pena da euriagatik publikoa nahi baino atzera-go kokatuta egotea".

Telefono morea, 24 orduz

Arrasateko Udalak, txosnagunearekin eta Arrasateko mugimendu feministarekin koordinatuta, eraso matxisten kontrako baliabideak jarri ditu herriko ez-jaietan: "688 80 91 37ra deituta, pertsona guztiek informazioa, aholkua, laguntza eta, hala eskatzen badute, arreta zuzena ere jasoko dute", adierazi du Udaleko Berdintasun batzordeko buru Johanna Sanchezek. Bestalde, autodefentsa feministan adituak diren emakumeek postua jarriko dute Arbolapetan, 22:00etatik 01:30era, "babes espazioa eskaintzeko".



Dantzari eta musikariak, errementari dantza egiteko zalantzaz. IMANOL SORIANO



Herriko txistulariak kalejiran, San Juan eguneko goizean zehar. IRENE JAUREGI

Gaurko eta biharko egitaraua

Herriko hainbat eragilek honako ekintza hauek antolatu dituzte sanjuanak borobiltzeko:

Ekainaren 25ean

- **Eguzkilaru eguna** Monterronen jolasak goizean zehar, kalean ginkana egun osoz eta 19:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amaren intxaurrak' Monterronen.
- **Marianito musikatua** Monteazpin, 12:00etan.
- **Kalejira** Trikitxa Eskolakoekin, 12:30ean.
- **'Zeuk in, zeuk jan' bazkaria** Monteazpin, 14:30ean.
- **Presoen aldeko manifestazioa** txosnagunetik hasita, 19:00etan.
- **Kontzertua** Monteazpin, 20:00etan, Bordan Bizio eta Txerrikumeak taldeen eskutik.

Ekainaren 26an

- **Bertso saioa** Seber Altube plazan, 13:00etan: Oihane Iguaran, Manex Agirre, Xabier Silveira eta Ane Beloki. Gai jartzailea: Imanol Artola. Sarrerak, aurrez, AEDn.
- **Kontzertua** Monteazpin, 19:00etan, Perlata eta The Clayton taldeen eskutik.



Itzulera ekitaldiko partaideak, publikoaren aurrean, Monterronen. XABI URZELAI



Buruhandia eta dantzaria, eskutik. X.U.

Sei lagunek ordezkatzuko dute Arrasateko harrobia

Gaurtik domekara arte, Espainiako Atletismo Txapelketa jokatzeko dute Getafen, eta Mojategiko harrobiko sei atleta izango dira han. Hain zuzen ere, horietako bost arrasatearrak dira; Agiriano azken orduan jaso du Federazioaren baiezkua

Xabier Urzelai ARRASATE

Asteburuan jokatzeko dute, Getafen, Espainiako Atletismo Txapelketa –maila absolutuan–, eta Arrasateko harrobiak sei ordezkari izango ditu han: Maialen Axpe (Atletico San Sebastian), Malen Ruiz de Azua (Valencia Sport) eta Istar Dapena (Real Sociedad) pertika-saltoan lehia-tuko dira, Eneko Carrascal (Real Sociedad) eta Alex Agiriano (Arrasate Atletiko) salto hirukoitzean eta Ibai Fernandez (Real Sociedad) 4x100 errelebo-lasterketan. Herri gutxi izango dute halako ordezkari-tza zabala.

Dapenak gaur du hitzordua

Gaur, egubakoitza, bertan lehia-tuko da Dapena pertika-saltoko finalean –19:15ean streaming bidez emango dute txapelketa–. Arrasatekoak urte gorabeheratsua izan du, 5,30eko saltoarekin aurkeztuko da Getafeko hitzordura, eta podiuma du helburu: "Isidro Leivak 5,52ko marka dauka, Didac Salasek 5,55 egin du aurten... Halakoetan, edozer gerta daiteke; orain, laugarren egongo naiz rankingean, baina atzerago egonda ere lortu izan dut domina. Egia esan, ez da oso urte ona, eta moralki oso lagungarria izango litzateke urtea podiumean amaitzea, txan-



Istar Dapena eta Eneko Carrascal, martitzen goizean Mojategin entrenatzen. X.U.

ponaren beste aurpegia ikusi nahi dut Getafen; denboraldiari buelta ematea, alegia". Izan ere, arrasatearrak ez du zorterik izan aurten. Pista estalian ez zen nahi moduan ibili, baina apirilean Euskadiko klubaren arteko txapelketan egindako 5,30eko markak arnasa eman zion Realeko atletari. Duela aste batzuk entrenatzen izandako istripu batek ere progresioa eten zuen, baina ondo iritsiko da Getafeko hitzordura.

Pertikarekin podiumera igo-tzeko beste bi hautagai dira

Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua –zapatuan, 18:00etan–. Lehenak esperientziatik egingo du tira, Axpek ondo ez dagoenean ere badaki lehiatzen, eta La Nucian duela bi aste egindako 4,30eko markak, seguru, moralki motibatu egin duela, Iruñean bizi den Bedoñako atleta atzetik aurrera datorren seinale. Malen Ruiz de Azuak oso denboraldi polita darama, eta orain momentuan daukan sasoi puntuak marka pertsonala ontzera eram dezake. Europako Txapelketan zilarra hartu ostean,

Getafeko hitzordua ondo pres-tatu gura izan du, eta maiatzean Zaragozan lortutako 4,47koa motz gera daiteke, gehiago egi-teko kapaz dela sentitzen du Ruiz de Azuak, eta 4,52ko mar-karen bueltan ibili. Horrek, ia seguru, urrea emango lioke, eta puntu kopuru polita Olinpiar Jokoei begira. Izan ere, Arrasatekoarendako zapatukoa ez da azken hitzordua. Txapelketaren ostean Madrilen geratzeko da, martitzen bertan Suitzara joango da-eta beste txapelketa batean esku hartzera. Aipatu moduan, Valentzia Sport taldeko atletak Olinpiar Jokoei egon nahi du, eta, gutxienezko marka lortzea ia ezinezkoa de-nez (4,70), ahalik eta puntu gehien batzean egon daiteke Jokoei-rako giltza. Hala, martitzeneko Suitzako hitzordua da puntuak pilotzeko azken aukera; horren ostean emango dute aditzera ze atleta izango diren Tokion.

Carrascal, txapeldun

Salto hirukoitzean (zapatua, 20:00) Realeko Eneko Carrascal eta Arrasate Atletiko taldeko Alex Agiriano izango dira txapelketan. Asteazkenean, joan den asteko hitzordutik errekupe-ratzeko lanean jardun dute biek ala biek; izan ere, joan den astean, Malagan, 23 urtez azpiko txapelketan, Carrascalek urrezko domina jantzi zuen. Eta ez da marka makala, kategoria horretan egin dituen hiru urteetan urtero irabazi du-eta urrezko domina, edo luzera-saltoan, edo hirukoitzean. "Azkenekoz hartu dut esku 23 urtez azpikoen mailan eta oso gustura nago hiru urte hauetan egin dudarekin. Denak ez dira urte borobilak izan; lehenengoan, esaterako, pista estalian urrea irabazi nuen,

baina ondoren, aire zabalean ez nintzen ondo ibili. Iazkoa urte ona izan zen eta aurten ere gustura ibili naiz", adierazi dio GOIENARI arrasatearrak.

Asteburuan, oilarrekin

Oraingo asteburuan, berriz, Carrascalek (16,02) eta Agiriano (15,26) salto hirukoitzeko oilarrak izango dituzte aurrean. Agiriano-arendako maila absolutuan debuta izango da, eta azken orduan jaso du berri ona; izan ere, eguaztenean, zentimetro bategatik kanpoan geratu zela adierazi zion Federazioak. Baina, azken orduko baja bati esker, eskoriatzarra Espainiako hamabi jauzilariren artean izango da lehian. Carrascalaren esanetan, motibagarria da maila horretako atletak aurrean izatea: "Pablo Torrijos egongo da (16,93), Bellido (16,56), Marcos Ruiz (16,44) ere bertan izango da... Aurten jendeak oso marka politak egin ditu, eta ederra da horiek aurrean izatea".

Ibai Fernandez, errelebotan

Eta Arrasateko azken ordezkariak, Ibai Fernandezek, domeka iluntzean izango du hitzordua (20:00). Madrilen ikasten duen korrikalariak 10.88ko marka egin du aurten aire zabalean, eta ez du lortu 100 metroko irteera puntuan egoteko gutxienezko marka. Baina arrasatearrak Realeko taldekideekin hartuko du esku 4x100 errelebo-lasterketan.

DAPENA IZANGO DA LEHENA FINALA JOKATZEN, ETA FERNANDEZEK DOMEKAN DU PROBA

Sudur gorriak Lleidan ere

Ointxe Araski taldeko neskek astelehenean amaitu zuten Espainiako Txapelketako bidea. Arrasatearrak final-zortzirenetarako sailkatu dira, baina Estudiantes taldeak gehiago dela erakutsi zuen kantxan (80-39). Hala ere, arrasatearrak ohitura bilakatu den sudur gorriekin amaitu zuten torneo, gozatu duten seinale.





Juan Ramon Mendieta Kultura zinegotzia eta Jon Garai Kultura teknikariburua, egitaraua eskuetan dutela. MAIALEN SANTOS

Herriko musikariak zein izen ezagunak, oholtzara

Ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 30era arte, askotariko hamaika emanaldi egongo dira Udazabal programaren baitan, eta izen ezagunekin batera herriko musikariak ere igoko dira oholtza gainera; gonbidapenak 'Arrasate.eus'-en lortu beharko dira aurrez

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hemezortzigarren edizioa du aurten Udazabal programak, eta ekainaren 30ean, eguaztena, ekingo dio bideari.

Jon Garai Kultura teknikariburua azaldu duenez, iaz erronka zaila izan zuten egitaraua osatzeko. "Pandemia betean egon arren, aurretik hartutako bideari eutsi genion eta eskaintza

auzoetara eraman genuen. Modu ezin hobean egin genion aurre erronkari eta herritarrek ere primeran erantzun zuten. Beraz, aurten horri eustea erabaki dugu".

Hala, izen ezagunak etorriko dira Arrasatera, askotariko publikoarendako eskaintzarekin. "Abaniko zabala izango da eta abaniko horretan etxeko eskain-

tza ere txertatu dugu", adierazi du Garaik.

Musika eta arte eszenikoak

Bi ardatzetan gorpuzten dira hilabete osoan herriko hainbat gunetan egongo diren ekintzak: batetik, musika; eta, bestetik, kaleko arte eszenikoak. Kasu horretan, dantza, antzerkia eta zirkua.

Musikari dagokionez, eta Arrasate Musikal Big Band-ek datoren egunean egingo duen emanaldia salbuespen izanik, eguazteneko emanaldi bat izango da. Emanaldi horietan, herriko musikariak eta izen ezagunak ariko dira oholtza gainean.

Ekainaren 30ean, Sonakay taldearekin batera Izadi arrasatearra ariko da Aldai parkean (Ikus 41.orria). Astebete geroago, Monterronen, Olatz Salvadorrek eta Garazi Barrenak joko dute. Gero, Julen Alonsoren emanaldia izango da, eta, aurretik, Trigger ariko da (Eñaut Zubizarreta). Uztailaren 21ean, Ibil Bedi eta The Potes taldeek eskainiko dute kontzertua, Santa Teresa elizaren ondoan, eta uztailako azken eguaztenean, berriz, Unidad Alavesa eta Screamer & Sinners taldeek.

Bestalde, dantzak ia urtero izaten du "leku berezia" egitarau horretan eta aurten ere hala izango da. Batetik, Dantzas konpainiaren *Basoa* ikuskizuna; eta, bestetik, hiru pieza laburrez osatutako saioa -hiru konpainia-: Noderen *Emakumeak*, Amaia Elizaranen *Out* eta Eva Guerren *Gorpuztu*.

Edukiera mugatua

Juan Ramon Mendieta Kultura zinegotziak azaldu duenez, aurten ere neurriak hartuko dituzte eta horrek eragin zuzena izango du edukieran. Izan ere, Aldai parkean 100 pertsona sartu ahalko dira; Monterron parkean, 224; eta gainontzekoetan, momentuz, 150. "Labiren neurrien arabera izango da". Halaber, pertsona bakoitzak lau gonbidapen eskuratu ahalko ditu, gehienez, doan. Eguraldi txarra eginez gero, Amaian egingo dituzte kontzertuak.

Udazabal programaren egitaraua

Guztiak, 19:00etan.

Ekainak 30, eguaztena
Sonakay eta Izadi, Aldai parkean.

Uztailak 1, eguena
'Basoa' emanaldia, Zaldibarko frontoian.

Uztailak 2, egubakoitza
Arrasate Musikal Big Band, Monterronen.

Uztailak 7, eguaztena
Olatz Salvador eta Garazi Barrena, Monterronen.

Uztailak 14, eguaztena
Julen Alonso + Trigger, Usaetxen.

Uztailak 21, eguaztena
Ibil Bedi eta The Potes, Santa Teresan.

Uztailak 23, egubakoitza
'Yes, we art', Seber Altuben.

Uztailak 25, domeka
'Node', 'Out' eta 'Gorpuztu', Zaldibarko frontoian.

Uztailak 28, eguaztena
Unidad Alavesa eta Screamer & Sinners, Cordoba y Oro plazan.

Uztailak 30, egubakoitza
'Legea gu gara' antzezlan, Seberren.

Maixa Lizarribar: "Egun borobila izan zen, benetan zoragarria"

"Oso nekatuta" bukatu zuten arren, oso sentsazio onak utzi dizkie pandero jaialdiak Arrasate Trikitixa Eskolakoei

E.A. ARRASATE

"Antolatze lanetan aritu ginen guztiondako oso egun luzea izan zen. Goizean goiz hasi ginen lanean, antolaketa, dekoratua, eta abar, eta 15:00etan soinu probak. Konturatu orduko, jaial-

dia hasi zen. Oro har, oso sentsazio onarekin gelditu ginen bukaeran: egun borobila izan zen", azaldu du Lizarribarrek.

Aitortu du agian ez daudela ohituta panderoak duen presentzia nabarmentzen. "Esan behar

da musikariek ahalegin handia egin zutela panderoari protagonismo berezia emateko, eta lortu zutela. Oso gauza interesgarriak eta politak egon ziren, guztiek eman zioten ukitu berezi hori", gaineratu du.

Parte-hartzaileen erantzuna "eskertzekoa" izan da, eta Udalaren laguntza ere "asko" eskertu dute. Hala, ez dute baztertzen beste bat egitea. "Hau zoragarri atera da. Baina indarberritu egin beharko dugu, esfortzu handia baitago atzean".



Neomak taldearen emanaldia, pandero jaialdian, Amaia antzokian. IMANOL SORIANO

Enkantera atera dute lur orotako ibilgailua

Eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 3a izango da; udal bulegoan eginez gero uztailaren 2a, egubakoitza. Gutxieneko irteera prezioa 250 euro izango da eta 100 euroko bermea ipini behar da. Orain arte, udal langileek erabili izan dute Mitsubishia

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Aramaioko Udalak enkantera atera du udal langileek erabili izan duten lur orotako ibilgailua. Ibilgailu zaharra kendu nahi dute eta erabaki dute beste biritza bat ematea autoari.

'Pick-up' erakoa

Dagoeneko Udalak publikatu ditu enkantearen prozedura arautzen dituen pleguak. Mitsubishi markako lur orotako ibilgailua da enkantera atera dutena, *pick-up* erakoa, zuria, lehenengo matrikulazioa 1995ean duena.

Prozedura irekia izango da eta eskaintza ekonomiko onena egiten duenak eramango du ibilgailua. Interesatuak uztailaren 3a baino lehen aurkeztu behar dute eskaintza. Gutxieneko irteera prezioa 250 euro izango da; hau da, eskaintzak ezingo dira prezio hori baino txikiagoak izan. Gainera, esleipendunak ordaindu beharko ditu balizko gastu guztiak –salmentaren zer-

gak, ibilgailua bere izenean jartzeko tramiteak...– eta, ibilgailua errepidean ibili ahal izateko, dagokion egokitzapen eta konponketak egin beharko dizkio, bere kontura, egungo legediak eskatzen dizkion betekizunak betetze aldera.

100 euroko bermea

Lizitazioan parte hartuko duten pertsona fisiko eta juridikoek 100 euroko bermea jarri beharko dute. Behin-behineko berme horrek bermatuko du lizitatzailerak mantendu egingo dituela aurkeztu dituen eskaintzak. Hori horrela, bermea konfiskatu egingo zaie esleipena egin baino lehen euren eskaintza atzera botatzen dutenei.

ESLEIPENDUNAK ORDAINDU BEHARKO DITU SALMENTAREN ZERGAK ETA TRAMITEAK

Non eta nola aurkeztu

Eskaintzak modu telematikoa aurkezteko aukera egongo da, eta baita udaletxeko bulegoan bertan ere. Kasu horretan, uztailaren 2a izango da azkeneko eguna, 14:00ak baino lehen. Ibilgailua ondasun ez erabilgarri bezala izendatu da, eta ez dauka karga, zerga edo bestelakorik. Ibilgailuari buruzko datu gehiago nahi dituenak edo ibilgailua bertatik bertara ikusi nahi duenak Udalarekin harremanetan jarri beharko du, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

Lizitazioaren xedean jasota dago prozeduran parte-hartze hutsak adierazten duela lizitatzailerak aurrez ezagutzen dituela ibilgailuaren ezaugarriak; bai baldintza fisiko eta juridikoak eta baita ondoren izan dezakeen aprobetxamendua ere. Kode Zibilararen arabera jarduteko behar besteko gaitasuna duten pertsona fisikoek edo juridikoek erosi ahal izango dute ibilgailua.

Datarik gabeko hitzarmenak bertan behera geratu dira

Nahiz eta Udalarekin sinatutakoak izan, ez dira legezkoak data zehatzik ez duten hitzarmenak

A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko Udalak bertan behera utzi ditu datarik edo epe zehatzik gabeko hitzarmenak. Udalak hainbat hitzarmen egin izan ditu herritarrekin eta eragileekin –udal bideen erabilera, ura...–. Baina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak dio hitzarmenak ezin direla datarik gabekoak eta betierekoak izan. Hori horrela izanda, bertan behera geratu dira datarik edo epea zehaztu gabe sinatutako orain arteko hitzar-

men guztiak, berdin da zein den hitzarmen horien arrazoia edo izaera.

Udaletik jakinarazi dute baten batek horrelako hitzarmenen bat sinatuta baldin badauka, eta uste baldin badu oraindik ere indarrean egon beharko litza-keela; adibidez, hitzarmena sinatzearen arrazoia gaur egun ere indarrean dagoelako, udaletxean eskaera ofizial bat egin beharko duela, hitzarmen zaharra eta hau berritzeko arrazoiak aurkeztuz. Udalak kasu guztiak aztertuko ditu.

Arazo teknikoak konponduta, gaur zabalduko dute ur parkea

Udalak eskatu du umeen gunea zentzuz erabiltzea eta errespetatzea: "Aramaioar guztiena da"

A.E.G. ARAMAIO

Gaur, egubakoitza, ur parkearen denboraldia zabalduko dute. Udalak dagoeneko arautu du ur parkeak aurtengo udan izango duen ordutegia: eskolako opor egunetan, astelehenetik domekara bitartean, 11:00etatik 19:30era egongo da zabalik; eta eskola egunetan, astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 19:30era eta zapatuetan eta domeketan 11:00etatik 19:30era bitartean.

Ur parkea "aramaioar guztiena" dela nabarmendu du Udalak, eta, horren harira, eskatu du,

gainontzeko azpiegituren moduan, zentzuz erabiltzea eta errespetatzea umeen gunen hori. Jende gehiegi pilatzen bada, txandak egiteko eskatu dute. Ur parkearen erdian dagoen botoia sakatu behar da ura botatzen hasteko; 15 minutura geratu egingo da, eta, berriro erabili gura bada, berriro eman behar zaio botoiari. Ur parkeko ura ez dela edangarria nabarmendu dute; gainera, ezin da ez jan ez edan; ezin da kristalezko botilarik sartu; ezin dira ibilgailuak sartu; eta ezta animaliak ere.

'Bertatik bertara' kanpaina jarri du martxan Uemak

Zerbitzuen sektorean euskara indartzeko *Bertatik bertara* udako kanpaina jarri du martxan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema). Aramaioko Udalak, beste behin, bat egin du irail erdialdera arte iraungo duen kanpainarekin: horren mezua daramaten mahai gainekoak banatuko dituzte herriko tabernetan eta jatetxeetan.

Jazz-rock doinuak eskainiko ditu Blue Matter taldeak

Blue Matter taldea 2018an sortu zuten. Ibilbide luzeko hiru musikaririk osatzen dute taldea: Alfonso Junguituk, Jon Cañaverasek eta J. A. Castillok. 60ko hamarkadatik gaur arteko nahasketak guztiak batzen dituzte euren abestietan: jazz-rock estiloa, jazz-funka, jazz-bebopa... Emañaldia gaur izango da, barikua, parkean, 20:00etan.



'Pick-up' erako Mitsubishi ibilgailua. A.E.G.

Herriko baserri guztiak jaso dituzte argazkitan

'Aretxabaletako baserriak' lana egin dute Resu Abasolok eta Jokin Antxiak konfinamendu sasoian eta Udalaren webgunean jarri dute orain, herritarren eskura; auzoetako etheen kokalekuak, argazkiak eta izenak jaso dituzte lan horretan

Mirari Altube ARETXABALETA

Auzoz auzo eta baserriz baserri ibili ziren konfinamendu sasoian Resu Abasolo eta Jokin Antxia, otsailaren hasieran, hain zuzen ere. Kamera hartu eta guztiei argazkiak atera zizkieten, 137 baserriri, eta horiek *Aretxabaletako baserriak* izeneko lanean jaso dituzte. Lan hori borobil du dute auzoko maparekin eta etxe bakoitzari izena zehaztuta alboan. Herritarren eskura jarri dute hori Udalaren webgunean *-aretxabaleta.eus-*, online kontsultatzeko eta dokumentua deskargatzeko aukerarekin; zuzenean ere eskura daiteke, honako helbide honetan: *labur.eus/auzoak*.

Izen ofizialak ere jasota

Aurtengo otsailaren 1etik 15era bitartean ateratako argazkiak dira lanean jasotakoak; egunean auzo batera jo zuten lanaren egileek. "Onartu behar dut baserri batzuetara lehenengoz iritsi nintzela; Jokinek, oster, Santa Ageda mutila izan zenez, guztiak ezagutzen zituen", azaldu du Abasolok.

Argazkiekin batera baserrien izenak jaso dituzte: batetik, izen ofiziala, eta, bestetik, Aretxabaletako ahoskera duena. Horretarako, informazio iturri legez erabili dituzte Foru Aldundiaren katastroa, Aretxabaletako Udala eta baserritarrek esandakoak. Baserriren batek armarrria badu, horren argazkia ere jarri dute, gertuagotik ikusi ahal izateko. Baserriak auzoz auzo daude jasota eta izenaren arabera alfabetikoki ordenatuta.

Udala "pozik" opariarekin

Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotzi Ainhoa Cabero pozik agertu da lanarekin: "Lan interesgarria da, eta benetan opari polita. Horregatik, oso eskertuta gaude". Nabarmendu gura izan du herriaren erdigu-



Resu Abasolo egindako lana erakusten, Arkupen. MIRARI ALTUBE

netik irten eta Aretxabaletako inguruneari balioa ematen diola lanak, eta Abasolok hauxe ere gaineratu du: "Oso ondo zaindutako inguruak ditugu, baserritarrei esker, eta hori benetan eskertzekoa da".

Lan hori osatu egin daitekeela onartu du egileak zein udal ordezkariak, historia kontuekin esaterako –hain zuzen, Aitor Antxia Leturiak eginda ditu halakoak–, eta horretarako zabalik agertu dira biak ala biak.

"Baserri gutxi batzuk daude jareginda"

RESU ABASOLO
LANAREN EGILEA

Aretxabaletako bederatzi auzotan dauden 137 baserri jaso dituzte lanean.

Baserri bat geratzen da auzoetatik kanpo, ezta?

Bai: Arantzazar; Bainuetxe guneari dagokio.

Baserri guztietan bizi da jendea?

Gehienetan, gutxi batzuk dira jareginda daudenak, sasiek janda. Bi eratakoak direla gaineratuko nuke: batzuk etxebizitzak dira, ortu ederrekin inguruan; eta beste batzuek, gutxiagok, ganadua daukate, eta baserriko lanetarako makineria gordetzeko lekua ere bai etxe inguruan.

Armarrriak ere jaso dituzue?

Bai; sei baserrik daukate.

Zein mendentakoak diren ikertu duzue edo bertako abizenak zeintzuk diren?

Ez, lana hasi egin dugu guk, eta hori hurrengo baterako geratuko da.



Basotxoko bazkideak batzar orokorrean, komentuan. M.A.

Ekintzei berrekiteko "gogotsu" agertu dira Basotxoko kideak

Batzar orokorra egin du erretiratuen elkarteak eta iaz hautatutako zuzendaritzako kideak ontzat eman dituzte

M.A. ARETXABALETA

Batzar orokorrik egiterik ez zuen izan 2020an Basotxo erretiratuen elkarteak, eta, urtebete geroago, joan den martitzenean, 2019ko eta 2020ko kontuak ontzat eman zituzten eta aurrea begira jarri ziren. Elkartek 919 bazkide zituen iazko urte bukaeran, eta horietatik 40 inguru elkartu ziren batzarrean.

Zuzendaritza, iaz berrituta

Penatuta agertu ziren zuzendaritzako kideak iaz ekitaldi gutxi batzuk egin ahal izan zituztelako. Aurtengo irailetik aurrea berrekiteko asmoa agertu zuten; besteak beste, honako hauek egin gura dituzte: Kultura Astea; gaztaina-jana eta 90 urtekoak omendu –iazkoak hogeita eta aurtengoak hamasei–, kantu taldea eta dantza taldea elkartzen hasi; eta tailerrak eta bidaiak abian jarri.

Hamaika Gara ekitaldira joateko txartelak, eskuragai

Gure Eskuk erreferendumaren aldeko Hamaika Gara ekitaldia antolatu du uztailaren 3rako, Bilbon (17:30). Zetak, Olatz Salvador, Dupla eta Itziar Ituño izango direla han iragarri dute. Bertara joateko autobusa egongo da Aretxabaletatik eta izena aurretik eman behar da, taberna hauetan: Urbaltz eta Gurea. Azken eguna uztailaren 1a da.

Iaz, zuzendaritza batzordera kide berriak sartu ziren, eta bazkideek onartu egin zituzten aldaketa horiek martitzenean; hona hemen batzordea: Aitor Alberdi presidentea, Luis Mari Unamuno idazkaria, Mari Carmen Corres diruzaina, Migel Elortza, Pedro Etxebarriarteun, Emilio Inda, Nieves Gonzalo, Kontxi Romano eta Ramiro Gomez.

Egoitza berriarekin "kezkatuta"

Basotxok egoitza berria izango du komentuan, eta planoak ikusgai jartzeko eskaera egin zuten; izan ere, komunikabideen bidez ezagututakoarekin ez ziren konforme agertu zenbait. Komentuko lanak egin bitartean Zainduzen izango dutela egoitza aipatu zuen presidentek, eta horrek ere zalantzak eragin zituen hainbati. Presidentea gertu agertu zen kezka guztiak alkateari azaltzeko.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Prebentzioaren bidean jarraitzeko apustua

EKKO izeneko prebentzio proiektua prestatu dute hainbat eragilek elkarlanean, eta eskola, kirola, komunitatea eta osasuna batzen ditu; 2010 eta 2011 urte artean jaiotakoekin landuko dute eta horien gurasoei bilerak egingo dute martitzenean

Mirari Altube ARETXABALETA

Nerabeen substantzien kontsumoaren kezka mahai gainean jarri zuten UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak orain dela hiru urte pasatxo, eta ondoren, ikastetxeak eta Udala ere batu ziren lantalde horretara. Ordutik hona lan asko egin dute eta datorren ikasturteetik aurrera beste prebentzio proiektu bat jarriko dute abian: EKKO.

Hainbat eragileren artean prestatu dute proiektu berria eta gizarte trebetasunak lantzea du helburu; hau da, haurrek nerabe direnean erabaki zuzenak har ditzaten irakastea. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakok haurrei 2010. eta 2011. urteetan jaiotakoei eta euren gurasoei bideratuta dago. Eta asmoa da UDAn, LEKen, Eskoriatza Kirol Elkartean eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako ludoteketan eskaintzea, 2022ko urtarritetik aurrera. "Martxan jarri aurretik, gurasoei aurkeztu nahi diegu, haien prestutasuna eta erantzuna jasotzeko", adierazi dute antolatzaileek. Horretarako, bilera egingo dute datorren martitzenean, hilaren 29an, komentuan (18:00); izena aurretik eman behar da, Gazteria Zerbitzuan: 943 71 18 62 eta gazteria@aretxabaleta.eus.

Familiak dira lanaren ardatz

Prebentzio-lana nerabezaroaren aurretik egin beharrekoa dela ondorioztatu dute orain arte lanean jardun dutenek: "DBHra iristen direnerako hainbat erabaki hartuak dituztelako". Hala, haurren eta nerabeen ongizatea hobetuko duen programa garatu gura dute, eskola, komunitatea, kirola eta osasuna batuta. Landuko dituzten alderdiak dira, besteak beste: autoestimua, komunikazioa, erabakiak hartzea, gatazken kudeaketa eta elkarre-ragin pertsonala.

Familiak izango dira lanaren ardatz; horregatik, haurrek trebetasun-sozialak landu behar dituztenean, bertan egoteko eskatuko diete gurasoei, eta zenbait ekintza partekatu egingo dituzte. Horrez gain, gurasoei bideratutako saioak ere izango dira, umeen bidelagun izan daitezten. Kirol elkartetan ez ezik ludoteka bidez ere egingo dute lan; kirola egitera animatuko dituzte, eta kirol jarduera ez konpetitiboak sustatu.

Bi urteko prozesua amaitzean neurtuko dute emaitza.



UDAKo jokalariek gaztetxoaren entrenamendu saio bat futbol zelai txikian. M.A.



MIRARI ALTUBE

Txistu doinuak, San Juan gogoan

Aurten ere ez da izan surik, ezta tantai altzatzerik ere, baina txistulariek San Juan bezpera girotu gura izan zuten, beste behin. Kalejira egin beharrean aterpe aterpe jardun behar izan zuten, eguraldi eskasagatik, eta herritarren txaloak jaso zituzten. San Juan egunean, oster, irekin txukunduta esnatu ziren herriko atari guztiak, azken urteetan legez.

Elkarretaratzea, Harrotasun Eguna aldarrikatzeko

Aretxabaletako Udalak bat egin du LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenean, eta haien eskubide unibertsalen aldeko konpromisoa adierazi du adierazpen instituzional bidez. Kolektibo horiek egindako borroka "luze eta ordainezina" aitortu gura izan dute, eta, "errespetuan eta berdintasunean oinarritutako jendartea eraikitzeke lanean" segitzeko konpromisoa hartu.

Hori horrela, Udalak eta Aretxabaletako Mugimendu Feministak herritarrek gonbidatu dituzte ekainaren 28an, astelehen, egingo duten elkarretaratzean; Herriko Plazan izango da, 19:00etan.

Udaletxean dagoen 'Zigor'-en eskultura, erakusketa batean

Kepa Akixo *Zigor* (Aretxabaleta, 1947) artistak *Egu iturria* izeneko erakusketa zabalduko du uztailearen 3an Miarrizteko Le Bellevue gunean, eskulturgilea han dela. Hainbat lan erakutsiko ditu; besteak beste, Aretxabaletako udaletxean dagoen egurrezko eskultura. Hain zuzen ere, atzo ziren eroatekoak Miarriztera. Egunero egongo da zabalik aretoa –martitzenetan izan ezik–, abuztuaren 29ra bitartean; hona hemen ordutegia: 10:00-19:00.

Eskultorea ez ezik, argazkilaria, margolaria eta olerkaria ere bada Akixo eta natura du inspirazio iturri lan askotan.



Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetiko

Endodontzia

Implantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55



Eskola Agenda 20-30: Hiri eta Komunitate jasagarriak izenpean egidako ikus-entzunezkoaren fotograma bat. IBARRAUNDI MUSEOA

Herriko azterketa egin, eta eskaerak udalbatzari

'Eskola Agenda 20-30: Hiri eta Komunitate jasagarriak' izenepean, ikus-entzunezko bat egin dute herriko ikastetxeetako hurrek, herrian zehar egin duten azterketaren berri eman eta udalbatzako kideei egin daitezkeen zenbait hobekuntza proposatzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iaz ez egin arren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleak osoko bilkura aretoan protagonista izaten dira, urtero, Eskola Agendaren bueltan egiten duten lan-ketaren berri emateko. Martitzenean, ezohiko osoko bilkura egiteko batu ziren udalbatzako kideak, eta, *Eskola Agenda 20-30: Hiri eta Komunitate jasagarriak* izenpean, bigarren, laugarren eta seigarren mailetakoei egin-dako ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten.

"Eskola Agenda 21 izan da orain arte, eta Eskola Agenda 20-30ek ordezkatu du. Nazio Batuen Erakundeak pertsonen arteko berdintasuna eta planeta babesteko garapen iraunkorreko helburuak definituta, guk ere helburu ekologikoak lantzen jarraituko dugu –plastikoak, zaborra, erreka garbiketa, landaketak...–, baina arlo sozialak ere kontuan hartuko ditugu"; hori esanez hasi zuten bideo bidez egindako aurkezpena.

Herriko azterketa sakona

Proposatutakoak kontuan hartzeko eskatuz, honako hauek adierazi zituzten hurrek: "Parkeek duten egoera ez da ona, garbitasun falta ikusi dugu, eta baita zakarrontzi falta liburutegian eta depositu zaharrean, adibidez. Eskola pareko zorua eta skate parkea konpontzea ere ondo legoke. Komunak falta dira herrian, berdegune gehiago behar ditugu..."; eskaera guztiak *Goiena.eus* webgunean daude ikusgai. Horren harira, eskerrak eman zizkieten udalbatzako alderdi guztietako ordezkariak, eta baita Joserra Zubizarretak ere, Eskoriatzako alkateak: "Konpromisoa hartzen dugu zuen eskaerak batzordean

PROPOSAMENEN ERANTZUNA IRAILEAN JASOKO DUTE HERRIKO AZTERKETA EGIN DUTEN HAUREK

aztertzeko". Parkeen azterketa egin duten hurrei erantzunez, alkateak bat egin zuen hurrek esandakoarekin: "Egia da parkeak eta plazak oso zikin ikusten ditugula, sarritan, eta, zorritzarrez, beste hainbat gune ere. Garbitasun zerbitzuko pertsonak aritzen dira kaleak garbitzen, eta une honetan zaila da herria garbi mantentzea, ahalegin berezia egin arren. Gogoratu beharra dago zakarrontzi selektiboak ditugula eta horiek erabili eta bertan ondo sailkatu behar dugula. Herri bat ez da garbiagoa sarri edo egunero garbitzen delako, bertako biztanleek ez zikintzeko egiten duten ahaleginarengatik baizik". Gauza zehatzei erreparatu, Luis Ezeiza patioan eta beste parke batzuetan hobekuntzak izango direla aurreratu zuen.

Udalbatzako kideek haurren eskaerak entzun zituzten, eta irailean jasoko dituzte aurtengo eskaeren erantzunak.

Euskara hutsetik ulertzen hasteko ikastaro berezia

EHUren eta Soziolinguistika Klusterraren eskutik, proba pilotu gisa datorren 60 orduko ikastaroa da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Datorren ikasturtean, euskara ikastaro berezia eskainiko da, zero ulermen maila dutenek 60 ordutan oinarritzko ulermen maila lor dezaten. Ikastaroa doakoa izango dela jakinarazi dute, eta, hain zuzen, interesa dutenek Leintz Udal Euskarategira, 943 79 21 68 telefono zenbakira, deitu dezakete.

Ikastaro hau berezia eta espezifiko da, hasierako helburua ez baita euskara erabat ikastea, ulertzen hastea baizik. Urrian hasiko den ikastaroa otsailean

amaituko da, eta astean bi orduko bi saio egingo dira.

Ikastaroa EHUren eta Soziolinguistika Klusterraren eskutik dator, proba pilotu gisa, eta hizkuntzaren ulermenean oinarritutako ikaskuntza-metodologia berria probatu nahi da. Azken urteotan, Euskaraldiarekin eta halakoekin, ulermenean jarri da komunikazioaren fokua; hizkuntza bat erabiltzeko, besteak ulertzea nahikoa da, elkarriketa elebiduna praktikan jar daiteke, komunikazioa bermatuz.

'Diberti' dantza ikuskizuna, COVID-19 garaira egokituta

Deabru Beltzak teatro konpainiaren *Diberti dantza* izeneko ikuskizuna izango da ikusgai gaur, Santa Marina plazan. Interesdunek gonbidapenak eskatu beharko dituzte, 650 49 51 66 telefono zenbakira *whatsapp*-a bidalita.

Pandemia egoeran, musikaz, jolasez eta dantzaz osatutako formula berezi bat taularatuko

dute oholta gainera igoko diren lau antzezleek. Horiek *dibertidantzariak* dira, eta beraien batera izango da Olatz Pagalday aktore eskoriatzarra herritarrek animatzen. Umorea izango dute ardatz, eta pandemia garaian jendea alaitzeko asmoz prestatutako ikuskizuna izango da. Kantu klasikoekin eta modernoekin laguntzarekin, dantza modu berezian egingez, neurriak errespetatuz ondo pasatu daitekeela demostratuko dute guztiek ere.



IMANOL BELOKI

Dantza erakustaldia frontoian

Beheko Errota musika eskolako dantza taldeko maila guztietako hurrek zenbait dantza egin zituzten martitzenean, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, txistulariek lagunduta, familiakoekin eta lagunarekin. Saio horrekin, amaitutzat eman dute ikasturtea, eta egindako lanaren balorazio positiboa egin du Oihane Vicente dantza irakasleak.

'Eskoriatza futsal cup' jokatu da zapatuan

Areto futbol txapelketa jokatu dute Manuel Muñoz kiroldegian zapatuan, 09:30ean hasita, Euskal Herriko sei klubetako hainbat mailatako haurrek. Horrekin batera, Zaldibar antzokian, 18:00etan, 'Los valores en la base' izeneko hitzaldia izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza futsal cup-en baitan, Irurtzun, Tafa FS, GFS, Salburua, Kukuiaga eta Eskoriatza taldeetako benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetako jokalarien arteko txapelketa jokatu dute Manuel Muñoz kiroldegian. Ikasturte honetan ez dute lehiaz izan haurren kategorietako taldeek, eta haiek disfrutatzea da egitasmo horren helburu nagusia.

"Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako taldeak ekartzen saiatu gara, kategoria bakoitzeko, eta haiek ondo pasatzea eta hurrengan areto futbolarekiko zaletasuna sustatzea da nahi dena", adierazi du Narciso Pavok, Eskoriatza Kirol Elkarteko kideak.

Hitzaldia Zaldibarren

Zapatuko partiduko amaitzean, 18:00etan, *Los valores en la base* izeneko hitzaldia izango da Zaldibar antzokian. Areto futbole



2017ko jardunaldia, Huhezin. GOIENA

esanguratsuak diren pertsonak izango dira hizlari: Teresa Aranzibia, entrenatzaile pertsonala eta kirolekoa; Jesus Candelas, areto futboleko entrenatzaile; Alvaro Gonzalez, kirol-psikologoa; eta Jaime Rodriguez, Areto

Futboleko Entrenatzaileen Elkarteko Nazionalako (ANEFS) presidentea. "Areto futbolearen hasten diren haurrei zuzendutako hitzaldiak eskainiko dituzte gonbidatuek. Haurrekin nola komunikatu behar den, gatazka baten hurrean nola jokatu behar den... izango dute berbagai. Bakoitzak hamar eta hamabost minutu arteko tartea izango du azalpena emateko, eta gero, mahai-ingurua egingo da. Antzokiko edukiera mugatua izanda, areto futbol txapelketan arituko diren begiraleek izango dute lehentasuna; gero, klubeko begiraleek; eta ondoren, gainontzekoek".

Areto futbol saileko *Eskoriatza futsal cup* egitarauari amaiera emateko, zapatuko txapelketako finalak jokatu dira, 09:30ean hasita, eta, ondoren, karta joko hezitzailea izango da haurrentzat, elkarren artean ezagutzeaz batera, areto futbolaz gozatu dezaten.

Kickboxing saioan, haurren erakustaldia eta 24 borroka

Atama Eskoriatzak antolatutako kickboxing txapelketa 16:00etatik 20:00etara bitartean jokatu da

I.B. ESKORIATZA

Duela bi urte egin zuten moduan, kickboxing txapelketa egingo dute zapatu honetan Joseba Iñurategi pilotalekuan. Orduan, K-1 Basque Country txapelketa jokatu zuten Eskoriatzan, eta, pisu askotariko kategorietan batuta, erakustaldi polita egin zuten Euskal Herri osotik etorri ziren borrokalariak. Orduan izandako arrakasta ikusita, zapatu honetan jokatu den txapelketan ere borrokalari ugari batuko dira, eta saio ederra izango dela espero dute antolatzaileek.



K-1 Basque Country txapelketa. GOIENA

Borrokalarien pisaketak arratsaldeko lauretan egingo dituzte, eta, gaztetxoaren erakustaldia egin ostean, 17:00 aldera hasiko da txapelketa. Ring barruko hamabi borroka izango dira, eta beste horrenbeste tatamiaren gainean. "Edukiera mugatua izango da, eta, gehienez 200 pertsona sartu ahal izango dira pilotalekuan, aurrez gonbidapena eskatuta. Pisua arabea, maila guztietako borrokalariak batuko dira bertan, eta, esaterako, Aratz Kamikaze Garmendia izango dugu gurean. Kerman Lejarraga borrokalari etortzeko ahalegina ere egin dugu, eta konfirmazioaren zain gaude. Hala ere, datorrena datorrela, disfrutatzea izango da asmoa", adierazi du Atama Eskoriatza taldeko entrenatzaile Rafa Carrietek.

LEINTZ GATZAGA 19



2019ko udalekuan egindako irteera batean. GUREL GURASO ELKARTEA

Hemezortzi haurrek eman dute izena Gatzagako udalekuan

Herriguneko udaleku irekietan hamar haur izango dira eta Ozetan egingo dituzten udaleku itxietan, zortzi

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako udaleku irekiak uztailearen 5ean hasiko dituzte, eta hilaren 16ra bitartean hamar haur arituko direla adierazi dute antolatzaileek. Goizez 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldean 15:00etatik 17:00etara, astegunetan. Egubakoitzetan, baina, goizeko ordutegia soilik izango da.

Uztailaren 26tik 28ra bitartean, berriz, udaleku itxiak egingo dituzte, eta horietan zortzi haurrek eman dute izena. Udaleku irekietan zein itxietan, Jon Egidazu eta Miren Antxia be-

giraleen gidaritzapean egongo dira haurrak.

Irteerei garrantzia

Udaleku itxietan, Garaion Sorringunear pasatuko dituzte egunak haurrek, baina herrigunear izango diren udaleku irekien bueltan ere garrantzi handia eman diete irteerei. Hori horrela, martitzenetan eta egue-netan irteerak egitea aurreikusi dute. Hala ere, egun horietarako programatuta dituzten jarduerak eguraldiaren arabera moldatu egingo dituztela aurreratu dute.



GARAZI OROBENGOA

San Juan su ederra Gatzagan

San Juan bezpera egunean, segurtasun arau guztiak hartuta, su ederra piztu zuten gatzagarrek San Migel plazan. Euri-jasa ederra ari zuen arren, ondo piztu zuten sua, 22:30 bueltan, aurretik mokadutxo bat hartu ostean. Bertaratu ziren herritarrak pilotalekuko arkupearen babespean eserita egon ziren, suaren goxotasunean, hura itzali zen arte.

Sanpedrorik ez; kultura hitzordu gutxi batzuk bai

Martitzenean ekaineko osoko bilkura izan zuten udalbatzako kideek, eta 2022ko herriko jaieguna izendatu zuten ekainaren 29a, San Pedro eguna. Aurten ez dira ospatuko, baina ekintza kultural batzuk izango direla aurreratu zuten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako jaien egitarauaren barruan, bezpera, San Pedro eguna, Kuadrillen Eguna eta Euskal Jai Eguna izan ohi dira. Aurten, baina, ez da sanpedrorik ospatuko, nahiz eta zenbait ekintza antolatu diren.

Martitzeneko osoko bilkuran, herriko jaieguna proposatu zuten 2022rako, San Pedro eguna. Aho batez onartu zuten udalbatzako kide guztiek, eta, horrekin batera, mezu hau helarazi zuen Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak: "Datorren astean, ekainaren 29a izango da San Pedro eguna. Geroz eta argi gehiago ikusten ari gara etor-

kizun hobe baten alde, baina aurten ere sanpedrorik gabe gaude, zoritzarrez, nahiz eta zenbait ekintza edo ekitaldi izango diren. Urrats berri baten aurrean gaude, beste erronka baten aurrean; izan ere, ekainaren 26tik aurrera musukoa kalean erabiltzea aukeran izango dugu. Urrats garrantzitsua da, eta badirudi ekaineko ohiko osoko bilkuran onartu dugun 2022ko San Pedro eguna jai ofizial bezala herrian ospatzeko moduan egon gaitezkeela. Zuei, zinegotzi guztioi, eta herritar guztiei, ahal duzuen eta onduen pasatzeko esan nahi dizuet. Oraindik badakigu zaintzen ja-

rraitu behar dugula, eta guztion ahalegina behar dela aurrera irteteko. Hala, sanpedroak ahalik eta ondoen pasatzen saiatu".

Egingo diren ekintzak

Meza egunak honako hauek izango dira: hilaren 28an, 19:00etan, salbea. Ekainaren 29an, meza nagusia, 12:00etan; eta hilaren 30ean, hildakoen aldeko meza, 12:00etan. Horrekin batera, zapatu honetan, Santa Marinar zenbait ekintza izango dira Eskoitz Txosna batzordekoek beste zenbait talderekin elkarlanean antolatuta, eta, horrekin batera, bandaren kalejira eta kontzertua izango dira.

San Pedro eguna ospatzeko, meza bakarrik Zarimutzen

Segurtasun neurri guztiak hartuta egingo da meza, baina trikitilariak girotutako luntxik ez da izango

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Pedro egunean, ekainaren 29an, ospatuko dituzte Zarimutz elizateko jaiak. Egitarau xumea antolatzen dute urtero: meza Zarimutzeko San Pedro elizan, luntxa eta trikitilariak. Urteren batean, Santa Agedako korua ere izan da abesten. Baina aurten ez da halakorik egingo.

Meza 12:00etan

Marije Fernandez de Arroiabe Zarimutz elizateko auzo-alkateak adierazi du aurten egitaraua murriztu egin behar izan dutela, egoera zein den ikusita, eta meza bakarrik izango dela. "Meza 12:00etan izango da, eta, horretarako, segurtasun neurri guztiak hartu ditugu. Urtero, Zarimutzeko, Maringo eta inguruetako auzoetakoak, bertan bizi garenon familiakoak eta



Meza Zarimutzen. MARIJE F. ARROIABE

herriguneko norbanako batzuk batzen gara, eta egun polita izaten da. Aurten, hala izan beharko du, eta, horrenbestez, datorren urtera arte itxaron beharko dugu, behar bezala ospatzeko".



AINGERU Gasolindegia S.L.

Aingeru Guarda pasealekua z/g
20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 53 73



Gu ere eskoriatzarrekin!

Akeita • Compostela • Inkernu
Urrestilla • Txalaparta
San Miguel Merenderoa



Kalejira eta kontzertua eskainiko ditu bandak

Bezpera egunean kalejira egin izan du Eskoriatzako bandak urtero, eta San Pedro egunean, berriz, kontzertua. Aurten, ekainaren 28an, 19:00etan hasiko dute kalejira herri osoan, eta hilaren 29an kontzertua izango da, Santa Marina plazan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Behoko Errota musika eskolako bandak urtero egin izan du San Pedro jaietan kalejira eta kontzertua. Bata, San Pedro egunaren bezperan, eta bestea, berriz, San Pedro egunean, hilaren 29an. Aurten ere ez dute hutsik egingo, eta herritarren gustuko emaldiak izatea espero dute.

30 musikari batzen ditu Eskoriatzako Beheko Errota musika bandak, baina zenbait kide ikasketengatik kanpora joaten dira ikastera, beste zenbait lanean kanpoan daude edo erreleboak, eta, aste barruko saioak direnez, ezingo dira guztiak batu. Hala ere, 25 musikari inguru batuko



lax, San Pedro jaietan, Eskoriatzako banda herrian zehar kalejira egiten. GOIENA

direla ziurtatu dute Eskoriatzako bandako ordezkariak.

Lanean, etorkizuna bermatzeko

Angel Bañares izan da urteetan Eskoriatzako bandako zuzendaria, eta, Jesus Urrutiak batuta hartu zuenetik, indartu egin dela banda adierazi du Eneritz Korujo musikariak. "Hitzordu jakinak ditugu urtean zehar: Santa Zeziliakoa, Gabonetakoa, zenbait urteren ostean berreskuratu genuen Aratus-teetako kontzertua... Erreperitorioak eta piezen generoak aldatzeak motibatu egiten gaitu, eta ezinbestekoa da hori Eskoriatzako bandaren etorkizuna bermatzeko. Ezin gara beti berdina jotzen aritu, eta ezta plaza beretan, baina, zenbait kasutan, ez da erraza guztiok batzea. Horrekin batera, musikari gazteen beharra ere ezinbestekoa dugu, baina harrobia sendo dago, eta horiek mantentzeko lan ere egin behar dugu. Helburua beti da bera, musikaz disfrutatzea, ondo pasatzea eta asmo horrekin eskainiko ditugu San Pedro jaietako kalejira eta kontzertua".

Bilakaera ona izan dugu



ENERITZ KORUJO
BANDAKO KIDEA

25 urtetik gora daramatzat Eskoriatzako bandan klarinetea jotzen, eta fase ezberdinak bizi izan ditut. Gogoan dut Jesus Urrutiak, bandako kide moduan, bonbardinoa jotzen zuela, eta orain zuzendaria da. Angel Bañares ere zuzendari eta musikari moduan ezagutu dut... Gaur egun, berriz, jende gazte dezente batu da, eta giro oso ona dago. Zuzendari gaztea izatea positiboa da, eta, urteko emanaldien artean, San Pedro jaietakoak bereziak izaten dira. Jai giroko kantuak direnean, musikariok gusturago aritzen gara. Pieza berriak beti dira ongietorriak.



Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

Gu ere eskoriatzarrekin!



Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



MARTIN frutategia

Frutan eta txarkuterian espezialista

Gu ere eskoriatzarrekin!

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58



Iaz, martxoan, Nhil taldeak lehen kontzertua eskaini zuen Eskoriatzako Zaldibar antzokian. IMANOL SORIANO



Duela bi urte, presoek aldeko elkarretaratzean. I.B.

'Marixol Eskoriatzara!' oihu eginez

Salbuespenezko espetxe politika amaitzeko ordua dela aldarrikatuko dute elkarretaratzean. "Elkarbizitzaren alde, konponbidearen alde, preso eta iheslariak etxeratzea lortu arte lanean segiko dugu", adierazi dute Sare Eskoriatzako kideek.

"Egitarau xumea, baina antolatu beharrekoa"

Eskoitzako Txosna Batzordeak, Einginke Elkartek eta Sare Eskoriatzak plataformak antolatutako egitarauaren barruan, Silitia taldearen emanaldia, presoek aldeko kontzentrazioa eta Nhil taldearen kontzertua izango dira zapatu honetan

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Pedro jaietako egunak as-
tegunetan direnez eta jende
askok egun horietan ezingo
duenez ekitaldietan parte hartu,
zapatu honetarako egitaraua
prestatzea erabaki dute herriko
zenbait elkartek elkarlanean.

Eskoriatzako jaietan, Santa
Marina plazan izaten den txos-
nagunean, urtero izaten dira

kultura emanaldiak, eta orain-
goan karparik egongo ez denez,
eguraldi ona egiteko "errezatu"
egin beharko dutela adierazi
dute antolatzaileek. Hala ere,
eguraldi ona dago iragarrita,
baina, hala ere, txarra egiten
badu, Olaeta plazara bideratu-
ko dituzte ekintzak. Santa Ma-
rina plazako edukiera mugatua
izango da, eta 200 pertsonaren-

tzat izango da esertzeko lekua.
Horrekin batera, pertsonen
arteko distantzia mantentzeko
eta maskarak erabiltzeko es-
kaera egin dute.

Estilo nahasketa berezia

Txosnaguneko ekitaldiak
18:00etan hasiko dira, eta Sili-
tia taldea izango da lehena
oholtzan. "Estilo alternatiboa

eskaintzen duten Ibai Silicato
-ahotsa eta perkusioa- eta Xa-
bier Barrutia -gitarra eta ba-
xua- lekeitiarrak izango dira
oholtzan. Eurek esaten duten
moduan, estilo nahasketa bat
eskainiko dute: pop, rock, dan-
ce eta phisicodelic *show*-a. Horren
ostean, 19:30ean, Fernando Es-
koriatza plazara gerturatuko
gara presoek aldeko kontzen-
trazioa egiteko eta talde argaz-
kia ateratzeko, eta, amaitzeko,
Santa Marina bueltatu, eta
20:00etan Nhil musika taldearen
emanaldia izango dugu egitaraua
ixteko", adierazi dute Eskoitz-
a Txosna Batzordeko kideek.

Herriko ordezkariak oholtzan

Beñat Arrieta gitarra-jolea,
Sara Alonso piano-jolea eta
abeslaria, Asel Errasti bate-
ria-jolea, Xabi Zuazabeitia ba-
xu-jolea, Lia Garai saxofoi-jolea

eta Aitor Ruiz de Austri tron-
boi-jolea dira Nhil musika tal-
dea osatzen dutenak. Zaldibar
antzokian egin zuten iaz, mar-
txoan, aurkezpen kontzertua,
eta oraingoan, berriz, Santa
Marina plazako kiosko gainean
izango dira, *Aztarnak* diskoko
kantuek eta bestelako bertsioak
eskaintzen. Zapatu honetan
aldiz, Eskoriatzako or-
dezkarik bakarrik beharrean -
Beñat Arrieta- beste eskoriatzar
bat izango dute eurekin: Asel
Errastiren ordezkari, Gari Baran-
diaran arituko da batera jotzen,
hain zuzen ere.

**EGURALDI TXARRA
EGITEN BADU, OLAETA
PLAZARA
LEKUALDATUKO
DITUZTE EKINTZAK**

'HEMEN DEBAGOIENA' ESKORIATZATIK

GOIENA TELEBISTA, SAN PEDRO EZ-JAIK

EKAINAREN 30EAN, EGUAZTENEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00

goiena
Zu hemen zaude.



"Danborrada ez egoteak pena handia ematen dit"

CIRILO PEREA ESKORIATZAKO DANBORRADAKO ZUZENDARI OHIA

Danborradako zuzendari zenbait urtez aritutako eskoriatzarrak gaztetatik bizi izan du ekitaldia, eta datorren urtean antolatuko den esperantzaz agertu da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gogoz eta seriotasunez bizi izan du Eskoriatzako danborrada Cirilo Perea eskoriatzarrak. Konpainia guztiak ondo ezagutzen ditu, eta zuzendari orokor ere urte askoz aritu da. Aurten ez dira herrian danbor hotsak entzungo, baina esperantzaz agertu da datorren urtean antolatu ahal izango den usteaz.

San Pedro bezperan egiten den Eskoriatzako danborradako erreferente bat zara. Betidanik izan duzu danbor hotsekiko maitasuna?

Txiki-txikitatik aritu naiz danborradan. 18 urterekin Eskoriatzako helduen danborradan hasi nintzen Elizoste konpainiarekin;



Cirilo Perea, 2017ko San Pedro jaietako nagusien danborradan. GOIENA

gero, Egokiena konpainian aritu nintzen, eta, zenbait urtez zuzendari orokor aritu ostean, Eguzkilore konpainiako gidari ere aritu nintzen, talde horretako Garbiñe Nuñez gidariarekin aginte-makila trukatzuz... Gero, erreleboa emateko garaia iritsi zen, eta Andoni Motok egin ditu azken urteak zuzendari, eta lan bikaina egiten du. Nire moduan, barru-barrutik bizi du hark danborrada.

Ibilbide luzea izan duzu. Bilakaera handia izan du Eskoriatzako danborradak?

Hasieran, lau konpainia zeuden, eta azken urteotan zortzi konpainia izatera iritsi gara. Gogoan ditut orduko garaiak, eta, talde zein jende gutxiago aritzen ginen arren, seriotasun gehiagorekin hartzen genuen ekitaldia. Jende helduagoa aritzen zen, eta, festa-giroa izaten genuen arren, ezberdina zen. Nire ustez, politagoa. Ondo pasatu behar da, ez dago zalantzarik, baina harrotu gabe, eta gogoa jarritz. Gaur egun, jende askok hartzen du parte, eta hori oso ondo dago. Izan ere, 200 pertsonatik gora izan gara azken urteotan, bai-

na lehen zegoen seriotasun hori galdu egin dela uste dut. Gainera, ibilbidea oso luze egiten da halako parte-hartze handiarekin, eta musika ere ez da ondo entzuten.

Eskumuturra hautsi izan zenue-nean ere, danborrada barik ere ezin geratu?

Hala da. 2002an, eskumuturra hautsi nuen eta eskaiolarekin atera nintzen danborradara, Joseba Errastirekin batera, zuzendariorde. Gero, zuzendaritza 2006an hartu nuela uste dut, eta duela urte gutxira arte aritu naiz. Datorren urtean uste dut posible izango dela danborrada egitea, baina ez dakit berriz aterako naizen.

Omenaldiak ere urtero egin dira danborradan. Ikuskizuna eskaintzeaz batera, merezitako aitortzak, betiere?

Hala da. Idoia Suduperi egingakoa dut, bereziki, gogoan. Lan asko egin zuen danborradaren alde, eta ez bakarrik nagusien danborradan, haurren danborradan ere bera aritzen zen haurrak gidatzen, arropak prestatzen... Halakoak egin beharrekoak direla uste dut.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**Gu ere
eskoriatzarrekin!**

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20555 Aretxabaleta

943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu



ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

Gu ere eskoriatzarrekin!



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza - Tel.: 943 71 45 06 - www.mirvat.com



Kotoiaren emakumeak erakusketa Andoainen; Laboratoriumen gaur irekiko dute, urriaren 10era arte. DABID ARGINDAR

Kotoi leunaren atzeko istorioak

'Kotoiaren emakumeak' izeneko erakusketa irekiko dute gaur Laboratoriumen, eta urriaren 10era arte egongo da ikusgai; Andoaingo eta Bergarako kotoi-fabriketan lan egin zuten emakumeak omentzea du helburu "oso bisuala eta sentzoriala" den proiektuak

Jokin Bereziartua BERGARA

Erakusketa oso berezia irekiko dute gaur Laboratoriumen: *Kotoiaren emakumeak*. Garai bateko emakume langileak omentzea du helburu erakusketak; kasu honetan, Bergarako Algodonera San Antonio eta Andoaingo La Algodonera Gipuzcoana lantegian lan egin zuten emakumeak. Andoainen martxoaren martxoaren 3tik 20ra egon zen erakusketa zabalik eta bigarren geltokia Bergarako Laboratorium izango da; urriaren 10era arte bisitatu ahalko da.

Askotariko arte diziplinak

Askotariko arte diziplinen birtatez emakume haien bizi-istorioak kontatuko dira, haiek bizi eta sentitu zutena azalduz. Hala, emakume protagonisten audioak, Fanny Alonsoren moda bilduma, Maialen Porroyren ilustrazioak,

Dabid Argindarraren argazkiak, Nerea Tuduriren poemak eta Nerea Bengoetxearen abestia izango ditu, besteak beste, erakusketak. Oso baldintza gogorretan lan egiten zuten arren, fabrikari zein etxean, "emakume biziak, alaiak eta eskuzabalak" izan ziren, erakusketako zuzendari Fanny Alonsok azaldu duenez. Erakusketa "oso bisuala eta sentzoriala" dela aurreratu du zuzendariak: "Emakume horien bizitzetan sartzeko aukera izango du bisitariak. Ikusi, entzun eta sentitzeko erakusketa izango da. Andoaingo emakumeen

HAINBAT BISITA GIDATU ANTOLATU DITUZTE; IZENA EMAN NAHI DUENAK, LABORATORIUMEN

bizitzatik hasita Bergarako emakumeengana pasatuko gara, sorpresa batekin. Usainarekin ere garai hartara bidaiatzeko gonbita egin nahi dugu; ea lortzen dugun... Erakusketan zehar bisitariaren zentzumen guztiak adi egotea lortu nahi dugu".

Emakume "aitzindariak"

Nondik datorren erakusketa? Fanny Alonsok honela azaldu du: "Donostiako Tabakalerako Kutxa Kultur Moda gunean ari naiz lanean eta bertan garatzen ditugun ekintzen artean urtero bi desfile antolatu behar izaten ditugu. Iaz atera nahi nuen bilduma kotoi organikoaz egindako teletan oinarritu nahi nuen; bilduma berri baten murgiltzen naizenean, beti saiatzen zerbait kontatzen, gaia testuinguruan jartzen... Pixkanaka hasi nintzen Andoaingo kotoi-fabrikaz ikertzen



Fanny Alonso, Itziar Igarza, Kristina Markina eta Anne Galarra. DABID ARGINDAR

21 testigantza; zortzi, Bergarakoak

Erakusketaren helburua "emakume aitzindari" horiek guztiak omentzea izanik, Fanny Alonsok 21 emakumeren testigantzak jaso eta erakusketara eroan ditu. Andoainen hamahiru emakumerekin egon zen eta Bergaran, berriz, zortzirekin egon da: Itziar Igarza eta haren alaba Kristina Markina —goiko argazkian, Alonsorekin eta erakusketako komunikazio arduradun Anne Galarragarekin—, Angela Latorre, Maria Jesus Amutxastegi, Maria Luisa Agirreolea, Natividad Agirre, Felisa Mugika, Ane Miren Olabarria eta Izaskun Agirregabiria. Testigantza horiek jasotzeko prozesua, Andoainen edo Bergaran izan, "gozamen itzela" izan dela dio Alonsok: "Kotoi-fabrikari bizitakoek harago euren bizitza ezin interesgarriagoen lekuko izan naiz, eta horrek ez dauka preziorik. Nire amonatzat bihurtu dira; maitasun handia hartu diet".

eta konturatu nintzen Andoaingo herritar mordo batek egin zuela lan kotoi-fabrika zaharrean; tartean, nire ama. Proiektuari esker jakin nuen nire ama zenak bertan egin zuela lan". Ama bertako langile izateak bere interesa handitu besterik ez zuen egin: "Atera nuen bilduma, baina gerora konturatu nintzen informazio mordo bat nuela erabili barik eta zerbait egin behar nuela. Eta erakusketa bat antolatzea bururatu zitzaidan; argi nuen ez nuela erakusketa bakarrik antolatuko, kotoi-fabrikaz eta bereziki bertako emakumeak protagonista izango zituen proiektuan askotariko arte diziplinak tartekatatu nahi nituela".

Alonsok argi du emakume haiei asko zor zaiela: "Aitzindariak izan ziren. Argi daukat emakume haiek egindako lanagatik ez balitz gaur egungoa baino are okerragoa izango zela

emakumeon egoera. Ausardia handia erakutsi zuten; gaur egungo egoera urrun dago berdintasunetik, baina haiek baino askoz egoera hobean gaude".

Bisita gidatuak

Erakusketa xehetasun guztiekin azaldu eta anekdota zein kontu txikiak azaltzeko asmoz, hainbat bisita gidatu antolatu dituzte, euskaraz eta gazteleraz. Uztailaren 7an, 21ean, 28an, abuztuaren 4an, 25ean eta irailaren 1ean izango dira bisita gidatu horiek, 12:00etan hasita. Aldez aurretik izena eman behar da 943 76 90 03 telefono zenbakira deituta edota laboratorium@bergara.eus helbidera mezu elektroniko bat idatzita.

Ikastetxeekin lantzeko asmoa

Gaia "oso interesgarria" dela iritzita, Alonsok belaunaldi berriekekin ere partekatu nahi izan du proiektua hasieratik, eta asmoa da Bergaran irailetik aurrera lantzea gaia eskolatan: "Nahi duguna da ikasle gazteek emakume horien bizipenak lehen pertsona entzutea, halakoak ez dira-eta historia liburuetan agertzen".

IKASTETXEETAN ERE LANDU NAHI DUTE: "HALAKOAK EZ DIRA HISTORIA LIBURUETAN AGERTZEN"

Basoa berreskuratzeari ekin diote, auzolanean

Kukubaso elkarteak 90 bat lagun elkartu zituen San Martzialen ekainaren 20an egindako lehen ekintzan, eta, besteak beste, hildako egurrarekin piramideak eta txoriendako habiak jarri zituzten; antolatzaileen ustez, jardunaldi "aberasgarria, hezitzailea eta alaia" izan zen

Jokin Bereziartua BERGARA

Bertako basoa berreskuratzea helburu duen Kukubaso elkarteak deituta, Bergara Herri Hezitzailea eta Erreka Garbiketa Batzordearekin batera eta Udalaren laguntzarekin, lehen auzolana egin zuten ekainaren 20an San Martzialen. Seminarioko patioan 90 bat lagun elkartu ziren eta San Martzialera igotzeaz bat Basoak Bizirik taldeak duela hamar urte egindako landaketen berri eman zuten.

Bigarren ekintza izan zen enborrez egindako piramideak: "Hurbildutako guztion ahalegina eta izerdia behar izan genituen enborrak eta zuhaitz adarrak barreiatzeko alde aurretik prestatutako tokira. Egur hila funtsezko elementua da basoen funtzionaltasun ekologikorako; hau da, ondo kontserbatutako basoek egitura-dibertsitate handia eta egur hil ugari dute. Alde horretatik, zuhaitz hilek edo gaixoez funtsezko eginkizuna dute gure basoen osasunean. Alde batetik, behar duten materia organikoa ematen duen lurzoruak aberasten dituzte; eta, bestetik, espezie askorendako babeslekua eta habitat aproposa eskaintzen dute, biodibertsitate-mailak handituz. Hala, modu batera edo bestera, espezie asko egur hilaren menpe bizi dira, onddoak edo intsektu saproxilikoak kasu horietako batzuk desagertzeko arriskuan daude, gainera".

Hildako egurraren garrantzia

Biologian doktore eta Kukubasoko kide ere baden Kiko Alvarezek nabarmendu egur hilaren garrantzia: "Zoritzarrez, Euskal Herrian ia ez zaigu baso zaharrik geratzen, eta bertan egur hilaren kantitatea urria da. Horregatik, Kukubasotik gure basoetan eta bertako espezieetan dagoen egur hilaren kopurua handitzen lagundu nahi dugu. Eta horretan



Hildako egurrarekin piramideak egin zituzten, biodibertsitatera begira. KUKUBASO

BAZKIDETZA KANPAINA HASI BERRI, POZIK DAUDE HERRITARREN ERANTZUNAREKIN

laguntzeko moduetako bat, gure ustez, egurrezko piramideak eraikitzea da, modu naturalean deskonposatzen joan daitezen. Horrela, egur hilaren kopurua handitzen laguntzeaz gain, jendeak elementu horrek gure basoetan duen balioa ikusi eta ulertzeko balio duen egitura sortzen dugu".

Txoriendako habiak eta murala

Auzolanean zehar garatutako beste ekintza bat izan zen txoriendako habiak zintzilikatzea. Kukubasoko kide Iñaki Madinabeitiaren azalpenak entzun ostean eta eskailera batzuen laguntzarekin, hainbat habia zintzilikatu zituzten. Horrez gain, mural bat ere egin zuten, umeei eta gaztetxoei begira: "Beste lanen artean jasotako orbelarekin letra erraldoiak osatuz kartoi meheetan, panel

erraldoi bat osatu genuen *Kukubaso* izenarekin. Jardunaldi aberasgarria, hezitzailea eta alaia izan zen domekakoa".

Pozik bazkidezarekin

Kukubasokoak "oso pozik" dau- de joan den astean abiatutako bazkide- tza kanpainarekin: "Oso pozik gaude herritarren partetik izan dugun erantzunarekin. Oraingo- z, bazkide laguntzaileak ari gara erakartzen, eta, aurrerago, bazkide babesleengana zuzenduko gara; hau da, herri- ko eragile, enpresa eta elkar- teengana". Kukubasoko bazkide zergatik egin behar den galde- tuta, honako hau diote: "Herri lurren ideia berreskuratuz, ja- betza kolektiboaren eta kudea- keta sostengarriaren bidez Ber- gara bizigarriagoa eraikitze- ko eta, bide batez, elkartearen lan-ildoak bultzatzeko eta ba- besteko". Bazkide egiteko mahaiak jarri izan dituzte, bes- teak beste, Irala kalean eta Oxi- rondoko azokan, eta euren asmoa da hurrengo asteetan mahai horiek auzoetara ere zabaltzea. Hala ere, Internetez bazkide egiteko aukera ere badago: *kukubasoelkartea@gmail.com*.

2020ko urritik jo gabe egon ostean, etzi itzuliko da banda

Sarrera doakoa izango da eta herritarrak gerturatu ahala banatuko dira, 400 laguneko edukiera bete arte

J.B. BERGARA

2020ko urria ezker jo gabe egon ostean, domekan itzuliko da Ber- garako Musika Banda udal pilo- talekura (12:30). Sarrera doakoa izango da eta herritarrak gertu- ratu ahala banatuko dira, 400 laguneko edukiera bete arte. Aurretik, 11:30ean, kalejira es- kainiko dute, eguraldiak lagatzen badu. Legediak baimentzen du banda amateurren entseguak eta kontzertuak egitea: "Musika Ban- den Euskal Federazioaren lana- ri esker lortu da, neurri handi baten. Oraindik ere egoera deli-

katu samarra denez, aurrerago hasi nahi duten kideei horreta- rako aukera eman diegu, eta, hala ere, 46 kide hasi gara en- tseatzeko", dio bandako zuzenda- ri Enrike Txurrukak. Ezin izan dute nahi moduan entseatu, eta horrek eragina izango du egita- rauan: "Elkarrekin jo gabe egin dugun denbora kontuan hartuta eta entseguetan talde erdia ba- karrik egon ahal izan garenez, ezin izan dugu, adibidez, San Martzial estampa gertatu. Hala ere, nahiko kontzertu bariatua gertatu dugu".

OHARRAK

Bergararren Arreta Zerbitzua: udako ordutegia

Uztailaren 1etik irailaren 17ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 14:30era egongo da zabalik.

Arrizuriaga parkea ireki dute, jauregia hesituta

2020ko martxoa ezker itxita egon ostean, atzo ireki zuten parkea; jauregia sei metroko segurtasun distantziarekin itxi dute eta putzuaren ingurua ere hesituta dago.

Ez-jaiak San Juan auzoan: herri bazkaria

Azken ekitaldia izango dute bihar, Tartufon bazkaria (14:30).

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak euskaraz egiteko laguntzak atera dituzte, udal euskaltegian, Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) eta UNEDen. Azken eguna irailaren 15a da; informazio gehiago: euskara@bergara.eus.

Uemaren 'Bertatik bertara' kanpaina

Bisitariak eta zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzea helburu duen ekimen- era 27 establezimendu batu dira aurtan.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerrak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21
K
 KALITEA
Enpresa Registrada 1100/025

"Buelta emango diogu pandemiaren kalteari"

MIREN ETXEBERRIA JAUREGI JARDUN EUSKARA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Ekainaren 17ko batzar orokorrean argi geratu zen pandemiak kalte handia egin diola Jardunen jardunari, baina egoerari buelta emateko gogotsu daudela dio presidenteak

Jokin Bereziartua BERGARA

2019ko martxoa ezkerro da Jarduneko presidente Miren Etxeberria Jauregi (Bergara, 1985), eta, beraz, pandemiak erabat baldintzatutako agintaldia ari da bizi izaten. Etorbizunera begirako erronka nagusiak dira, Etxeberriaren arabera, pandemia aurretik martxan zituzten ekimen guztiak berreskuratzea.

Noiz eta nola heldu zinen Jarduneko presidente izatera?

Urte batzuk neramatzan zuzendaritza batzordean, eta aurreko presidenteak erreleboa nahi zuela-eta proposamena egin zidaten. 2019ko martxoan izendatu ninduten presidente.

Nolakoa ari da izaten zure agintaldia?

Pandemiak baldintzatutakoa, erabat. Saiatu gara jarduerari eusten eta egoerara egokituta aurrera egiten. Bestalde, langileen baldintzak hobetzeko hitzarmen berria aplikatzen



Miren Etxeberria Jauregi, Jarduneko egoitzaren atarian. JARDUN

hasi ginen 2020an; horrek egonkortasuna eman dio elkarteari. **Zertan eragin dizue pandemiak?** Erabat baldintzatu du gure jarduera. Ekintza gehienak taldean gauzatzen dira, eta hori ezinezkoa izan da edo oso

murritzua egon da. Oraindik ere ez ditugu zenbait ekintza berreskuratu; adibidez, asteburuetako umeen aisialdikoak. Eta berreskuratu ditugunak talde txikietan eta neurri zorrotzekin izan dira.

Euskara izan da pandemiaren beste biktima bat? Ze iritzi duzu?

Bai. Herriar askok ez dute etxean euskaraz egiteko aukerarik. Euskaraz egiteko zituzten gune eta aukerak kenduz, ohitura eta erraztasuna galtzea eta erabilera gutxitzea ekarri du.

Azken urteetako dinamika berria barmenduko zenuke?

Martxan genituen ekintzak mantentzera bideratu ditugu indarrak; itxialdian, esaterako, euskara sustatzeko online ekintza batzuk antolatu genituen.

Batzar orokorra egin zenuten ekainaren 17an. Zer moduz?

Bazkide gutxi egon arren, ondo joan zen. Ondorioa da pandemiak ekonomikoki asko kaltetu duela elkarteak; gastuak murriztu eta sarrera berriak lortzeko ahalegina egin behar dugu.

Badatoz udaleku irekiak. Nolakoa izango dira?

Nahiz eta egoera hobetzen ari den, oraindik ere pandemiak markatutako udalekuak izango dira. Lehen, umeak gune bakarrean egoten ziren, eta orain, pandemiagatik, herriko hiru ikastetxeetara zabaldu da. Bestalde, neurri bereziak hartuko dira eta begiraleko umeen ratioa ohi baino txikiagoa izango da. Ahal den ekintzak guztiak kanpoaldean egiten saiatuko gara eta, musukoa dagoeneko derrigorra izango ez den arren, gomendagarria dela-eta berau erabiltzea bultzatuko dugu. Haur Hezkuntzako laugarren mailatik

Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarteko 376 umeak hartuko dute parte eta 50 begirale egongo dira eurekin.

31 urte bete ditu Jardunek. Asko aldatu dira gauzak, ezta?

Gauzak asko aldatu dira. Sorrean, esaterako, *Berrigara* aldizkaria zen Jardunen ekimen nagusienetako bat. Ondoren, kulturak eta aisialdiak hartu zuten lekukoa eta, gaur egun, aisialdiak pisu handia izaten jarraitzen duen arren, herriarrek sentsibilizazioak eta euskararen erabilera sendotzeak garrantzia hartu dute. Bestalde, Udalak lehiaketa publikora ateratzen dituen zerbitzuak kudeatzen ere hasi ginen orain dela urte batzuk: ludotekak, Aroztegi aretoa, Osintxuko liburutegia... Honek Udalarekin dugun harremana sendotzera eramane gaitu. Lantaldea ere asko hazi da urteotan; gaur egun, 15-20 pertsona lantaldea osatzera iritsi gara.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Jardunek bakarrik ezingo duela Bergara euskaldundu. Herriarrek eta eragileen parte hartzea, inplikazioa eta elkarlana ezinbestekoak izango dira.

"UDALEKU IREKIETAN 376 UMEK HARTUKO DUTE PARTE ETA 50 BEGIRALE EGONGO DIRA EUREKIN"



ANDONI GOITI

Angiozar Tokiko Entitate Txiki izateko prozesua, martxan

Angiozar Tokiko Entitate Txiki izatearen gaineko partaidetza prozesua abiatu dute Siadeco ikerketa kooperatibarekin. Izendapen horrek Bergarako Udaleko hainbat zerbitzu eta eskuduntza zuzenean Angiozartik kudeatzeko eskumena izatea ekarriko luke. Herriarrek elkarriketarako dabilta egiten, baina bestelako dinamika ere egingo dituzte; era anonimoan betetzeko inkesta bat ari dira prestatzen, eta Angiozarko eragile nagusiekin elkarriketa fokalak egingo dituzte. Prozesua uztailaren bukatuko da, eta, aldi berean, Udalak Angiozarko ondasun eta zerbitzuen azterketa egingo du.

Beart: erakusketa Baionan, domekatik uztailaren 10era

Azken urteotako ohiturari jarraiki, Baionako Kortsarioen arte galerian erakusketa jarriko dute Beartekoek ekainaren 27tik uztailaren 10era arte. Bearteko honako artista hauen koadroak egongo dira ikusgai: Juan Martin Aristi, Pili Azkarate, Antton Arrilaga, Maite Azkargorta, Ricardo Azkargorta, Ramon Barutiabengoa, Jon Balentziaga, Justina Elempuru, Karlos Galarraga, Xabier Larrañaga, Mayra Jimenez, Daniel Laskurain, Mari Carmen Laskurain, Alfonso Romero, Josu Okina, Ricardo Peña, Marilu Unzurrunzaga, Kontxi Idigoras, Mari Paz Alustiza, Ramon Aranzabal, Xabier Agirre eta Juanjo Altuna.

Futbola ezagutu, futbolaz gozatu

Neska Futbolarien Topaketa egin zuten joan den zapatuan Agorrosinen, Bergara Kirol Elkartek antolatuta eta Realaren laguntzarekin. 2007tik 2014ra bitartean jaiotako 70 neska inguruk hartu zuten parte topaketan, eta antolatzaileak "pozik" daude egunak emandakoarekin:

"Eskerrik asko partaide guztiei, izugarria izan zen Agorrosingo irudia". Futbolearen lehen urratsak egin zituzten partaide gehienek, Realeko eta BKEko adituek proposatutako ariketen bitartez; Antzuolatik eta Elgetatik ere etorri ziren gazteak batzuk.



Jone Agirrezabal, Eibar Rugby Taldeko jokalaria bergararra. MIREIA BIKUÑA

Erreginaren Kopa ona egitera, borobiltzeko

Eibar Rugby Taldean dihardu Jone Agirrezabal bergararrak, eta, Ohorezko Mailan liga bikaina egin eta ezustea emanda finalerdietara iritsi ostean, Erreginaren Kopako bigarren asteburua dute oraingoa, oportetara lan txukuna eginda joateko helburuarekin

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Bost urte daramatza Jone Agirrezabal bergararrak Eibar Rugby Taldean, eta barrutik ezagutzen ari da klubeko emakumezkoen talde nagusiaren bilakaera ikaragarria; pandemiak etendako denboraldian iaz igoe-ra lortu, eta Ohorezko Mailan egindako lehen sasoiaren, helburua mailari eustea zenean –ezin zitekeen bestela izan–, zer eta ligako finalerdietaraino iritsi; finalaren atari-atarian geratu gainera: pentsa, maiatz amaieran jokaturako partidua hartan, 0-19 aurretik lehen zatian, eta azken uneko zigor kolpe bategatik 25-24 galdu, azkenean, Majadahondaren zelaian.

Asteburu honetan, berriaz, Erreginaren Kopari emango diote amaiera –aurreko asteburuan ekin zioten–, ahal bezain maila ona eman eta, horrela, hain oparoa izan den denboraldia borobiltzeko.

Ezerk ezin dezake, hala ere, Eibarko nesken zatik kategorio

berria zen Ohorezko Mailako lehen urtean egindako lan paregabea ilundu: "Aldea badago kategorio batetik bestera. Ohorezko B Mailan jokoa askoz motelagoa da, kontaktua ez da hain gogorra... Ohorezko Mailan oso-oso azkarra da jokoa, eta kostatu zaigu apur bat kategorio honetara egokitzea; baina asko entrenatu gara, ikaragarri, eta horrek lagundu digu hartu dugun mailara heltzen. Horrez gain, denboraldi honetarako iritsitako jokalaria berriek ere lagundu digute".

Erreginaren Kopa

Oporrak hartu aurretik, asteburu honetan Erreginaren Kopa bukatzea tokatzen da orain;

ONDO HASI DUTE EIBARTARREK KOPA, ETA DATORREN URTERAKO TXARTELA ZIUR DUTE IA

zazpiko errugbi formatuan jotzen da. Aurreko asteburuaren ostean –bi partidua irabazi zituzten eta bat galdu domekako jardunaldi puntuagarrian; zazpi minutuko bi zati dituzten partidua dira–, hurrengo urtean ere Erreginaren Kopa gorengo mailan jokatzea ia ziurtatu dute, eta asteburu honetan ere maila ona eman eta txapelketa ahalik eta goren amaitzea izango da debabarrendarren helburua. "Irabaztea zaila izango da; nahikoa indartsuak diren taldeak daude", dio Agirrezabalek; irabazteko ligako finalerdian Eibar kanporatu zuen Majadahonda eta finalean haiei irabazi zien Cisneros dira faborito.

Sant Cugatena, Bartzelonan, jokaturako dira Erreginaren Kopako bigarren asteburu honetako partidua, eta Olimpico, Leon eta Majadahonda izango dira eibartarren zapatuko aurkariak; zapatuko emaitzen arabera izango dira domekako beste hiru neurketetako aurkariak.

Bergararrak finalean, etxean, eta publikoarekin, gainera

Udaberri txapelketako Bigarren Mailako finala jokatuko dute gaur Etxezarretak eta Rezustak, legazpiarren aurka

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Asteburuan Erreterian irabazita sailkatu ziren Etxezarretak eta Rezusta Udaberri txapelketako finalerako. Aurreikusitako partidua egin zuen Bergararako bikoteak, Etxezarretak pilotari eman ohi dion abiadura aprobetxatuz, baina Rezustak ere oso partidua serioa egin zuen. Atzean kargatu zuten jokoa, eta euren atzelariak –ohikoa ez, beste bat– ezin izan zion eutsi. 22-11 izan zen emaitza.

Ondorioz, gaur –egubakoitza–, 20:30ean eta etxeko frontoian, finala izango dute Etxezarretak

eta Rezustak, Legazpiko bikote baten kontra. "Euren atzelaria nahikoa gogorra da, kolpe Rezusta baino gehiago; ea Etxezarretak eramaten duen jokoaren ekimena", zioen Bergararren prestatzaile Julen Aranburuk. Aspaldiko partez, zaleek frontoian egon ahalko dute finalean. Finalaren aurretik, infantilen Etxabe-Etxeberria partidua jokatuko da, 19:30ean.

Lazkaon galdu

Bestalde, Etxanizek eta Gartziak galdu egin zuten asteburuan 22 urtez azpikoen finalerdia.



Etxezarretak eta Rezusta, finalerdia irabazita. GOIENA

Teatro PezKao konpainiaren hiru emanaldi, asteburuan, herrian

Kartzela zaharrean, gaur eta bihar, eta Zubietako eskolan, domekan, Kontseilu Sozialistak antolatuta

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Bosgarren aldiz bisitatuko dute Bergara Zaragozako PezKao antzerki taldeko kideak. Egune-roko gauzetan sentimendu kontrajarriak eragiten eta iradokitzen dituzten egoerak bilatzen dituen konpainia da espainiarra. Hasiera batean, oraingo emanaldiok aurreko urteko maiatzean egin behar zituzten, baina pandemiak eragotzi egin zuen, eta orain arte ezin izan dira gauzatu.

Bi lan ekarriko dituzte herri- ra: gaur, egubakoitza, 20:00etan

eta kartzela zaharrean, *De ratas y canguros* antzezlan eskainiko dute –sarrera, 5 euro–; bihar, berriz, ordu berean, *Cazar un boquerón*. Antzezlan horixe bera berririo eskainiko dute domekan Zubietako eskolan, 13:00etan, Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak antolatuta. Emanaldi hau doan izango da, eta, batez ere, auzokideendako da.

Antzerki taldekoek komedia eta umore beltza lantzen dituzte obra horietan; horrekin batera, inprobisazioak beti izan ohi du lekua euren emanaldietan.



EH Bilduren ekitaldia Herriko Plazan. JONE OLABARRIA

EH Bilduk bi urteotako balorazioa egin du

Antzuolako EH Bilduk agintaldiaren bi urteotako balorazioa egin zuen zapatu goizean Herriko Plazan. Esti Elduairen batzarkideak EH Bilduren hamar urteen inguruan ere jardun zuen herritarrekin, eta Antzuolako kudeaketa eredua azpimarratu zuen

Maidar Arregi ANTZUOLA

EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen zapatuan Antzuolako Herriko Plazan. Zinegotziek eta hainbat herritarrek parte hartu zuten bertan, eta agintaldiaren lehen bi urteotako balorazioa egin zuten. Bertsoez gozatzeko aukera izan zuten gerturatu zirenek, baita Lierni Errasti eta Saioa Zabalo antzularren musikarekin ere.

"Ilusioz" lanean jarraitzeko

Beñardo Kortabarria alkateak agintaldian zehar, eta orain arte, egindakoaren balorazio positiboa egin zuen, eta "ilusio eta gogo handiz" lanean jarraituko dutela aitortu: "Kontuan hartuta pandemiak bete-betean harra-patu gintuela, aurrekontuaren gauzatze emaitzak oso onak izan dira; 2019an pentsatutakoaren %97 egitea lortu genuen".

Alkateak azaldu zuenez, eta "ezgaitasun estrukturala" eduki eta "kudeatzaile txarrak" izatea leporatu zaien arren, 2020. urtean

aurreikusitakoaren %85 gauzatu zuten: "Pandemiaren ondorioz bi proiektu handi atzeratu behar izan ziren; bestela, %92an ibiliko ginateke erraz".

"Sendotuta"

EH Bilduren hamargarren urteurrena gogora ekartzeko hitzordua ere izan zen zapatukoa Antzuolan, Esti Elduairen batzarkidearen eskutik: "Hamar urte mugimendu politiko baten tzentz epe motza da; nahiz eta hasiberriak ere ez garen, ibilbide honetan denetik bizi izan dugu. Koalizio moduan sortu zenetik gaur egun arte bilakera gorabeheratsua izan dugu, baina orain sendoago gaude".

"ANTZUOLAN GARBI DEMOSTRATU DA KUDEATZEN BADA KIELA EH BILDUK"

Herritarrek EH Bildurengan konfiantza dutela uste du Elduairen: "Lehen indar municipala gara, eta Gipuzkoako herrien erdietan EH Bilduk gobernatzen du, eta hori jendeak gudan duen konfiantzaren seinale da". Azken urteotako bilakaera ere azpimarratu nahi izan zuen: "Izandako hauteskunde guztietan gora egitea lortu duen indar politiko bakarra izan gara, eta, hortaz, esan dezakegu indartuta gaudela. Aldaketarako alternatiba gara".

Antzuola, "eredugarri"

Herriko kudeaketak "egiten badakiela" demostratu duela dio Esti Elduairen batzarkideak: "Antzuolan, beste hainbat herritan bezala, ondo eta garbi demostratu da EH Bilduk kudeatzen badakiela, herritarrek konfiantza dutela, eta, urtetik urtera, hauteskunde hauteskunde, babesa geroz eta handiagoa dela".



JOSE MARI GALEANO

Galeanotarrak txapeldun

Nafarroako Txapelketako finalean 22-19 irabazi zioten Leire eta Nagore ahizpek Leire Oscozek eta Erika Alvarezek osatutako bikoteari, Uhart Arakilen. "Partidu gogorra izan da, ikusteko polita... baina ez aita moduan. Pultsometroa izanez gero, pultsazioak topera izango nituen!", zioen finalaren ostean Jose Mari Galeanok.

GORA ETA BEHERA



Torresoroa osteko jarlekuak, lotuta

Argazkian ikusten denez, Torresoroa atzean dauden eserlekuak solte eta lekuz mugituta agertu ziren. Antzuolako Udalak lotu ditu. Abisua pasa zuen herritarra eskertuta dago.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

"Gazteak erakarri nahi ditu Ozkarbi elkarteak"

SARA JIMENEZ DE ABERASTURI OZKARBIKO DINAMIZATZAILEA

Ozkarbi elkarteko zuzendaritzak lanketa berezia egin gura du herriko gazteekin. Zapatuan egingo du dinamizatzaileak lehen saioa, LH-6tik gorako gazteekin

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Martxoan bete ziren bi urte Ozkarbi elkarteak gazteendako gunea zabaldu zuela. Urtebete zabalik egin ostean, pandemia etorri zen, eta itxita egon da. Zapatuan egingo den dinamizazio-saio batera deitu dituzte, orain, LH-6tik gorako gazteak. **Zein da saio horren helburua?**

Herriko gazteak erakarri nahi ditu elkarteak. Espazio bat zabaldu zuten, baina gazteek ez dute uste bezain beste erabiltzen. Hala, erakargarri izateko zer falta zaion jaso nahi dute gazteengandik. Haiek entzutea da helburua.

Ez da erraza izaten gazteak halako dinamiketara gerturatzea.

Hala da, baina gauzak ez dira zerutik erortzen, eta, gazteek ez badute transmititzen zer behar duten, aisialdi aukerak murrizten joango dira herrian. Maeztun bizi naiz. 400 biztanleko herria da. Gazteendako aisialdi aukera oso gutxi dago, eta joera nagusia da Gasteizera joatea. Aldiz, ikusten dut Elgetan badagoela potentziala duen espazio bat, eta baita ere elkarte bat ahalegin hori egin nahi duena.

Hilabete inguru diharduzu lanean. Bai. Errazte dinamika oinarri dituen master bat egiten ari naiz, eta diseinatu dut prozesu



Sara Jimenez de Aberasturi. S.J.A

"POTENTZIALA DUEN LOKAL BAT DUTE, ETA GAZTEEN PREMIAK ZEINTZUK DIREN JAKIN NAHI DUTE"

bat hainbat dinamikarekin gazteekin lanketa egiteko. Zer igartzen dute faltan? Ze interesgune dituzte? Zuzendaritzako kideek transmititu didate Ozkarbin lokala badutela, baina zerbait egin nahi dutela hori erakarga-

rriago egiteko. Biharko saioan ikusiko dugu zenbat gazte gerturatzen diren. Kopuruaren eta adinaren arabera taldeak egingo ditugu.

Eta gazteei zer esango diegu?

Gerturatzeke. *Doodle* lotura bat zabaldu dugu izena emateko. Ondo pasatuko dugu. Ez da hitzaldi bat izango. Egingo ditugu jokoak, dinamika, eta aukera izango da nork bere interesen berri emateko. Ondorioak zuzendaritzara joango dira, eta bertatik egingo dute jarraipena.



Xalbadorpe elkarteko gaur egungo zuzendaritzako kideak. XALBADORPE ELKARTEA

Erretiratuek urteko batzarra deitu dute martitzenerako

Zuzendaritza berritzeko boluntarioak behar dituzte eta bazkideei dei egin diete urrats hori egiteko

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Xalbador elkarteko erretiratuen dako ez da urte erraza izan. Pandemia hasi zenetik ekintza ia guztiak etenda izan dituzte, baina egoerak lagunduta zuzendaritza batzordeko kideek erabaki dute urteko batzarra antolatzea. Martitzenerako, hilak 29, deitu dute. Espaloia kafe antzokian egingo dute, 17:00etan.

Elkartearen funtzionamendu egokirako ohikoak diren gaiak izango dituzte mahai gainean: aurreko aktaren onarpena, 2020ko diru kontuak, abendura arteko ekintzak, urteko kuota-

ren ordainketa data... "Poli-ki-poliki, betiko martxara itzuli nahiko genuke, egoerak aukera ematen badu", azaldu du elkarteko presidente Pello Ojanguren.

Boluntarioak zuzendaritzarako

Kezka handiena, ordea, zuzendaritzan sartzeko boluntario falta da. "Bederatzi lagun gara gaur egun, eta batzuek urte mordoa daramate. Txanda emateko unea da, baina ez dago boluntarioa, eta elkarteak aurrera egiteko ezinbestekoa da", azaldu du Pello Ojanguren.

GORA ETA BEHERA



IRATXE BRAVO

Baso-bide asko egoera negargarrian daude

Egoarbitza azpiko pista baten argazkia bidali du irakurle batek. Dio ez dela egoera txarrean dagoen baso-bide bakarra. "Edozein sute, erreskate edo zernahi... Ezingo dira bide horiek erabili".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Jokoak eta eskulanak udalekuetan

Astelehenean zabaldu zituen ateak udako udal aisialdiak. Taldeak eratzeke eta udalekuen funtzionamendua ezagutzeko orduak izan ziren hasierakoak. Laster etorri ziren, ordea, jokoak, tailerrak eta eskulanak. Lehen astean, Altxorraren Billa, kimika jokoak eta espazio hurbilean egindako askotariko jarduerak izan dira nagusi. Hurrengo astean, gehiago!



Udalekuetako neska-mutiko talde bat, eguztaren goizean. L.Z.L.

Jaien ordeez, ekitaldi multzoa

Jende pilaketak saihesteko eta neurriak mantentzeko moduko ekintza sorta antolatu gura izan du Udalak Ferixa Nagusiko jaiak beharko luketen egunetarako

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Aurten ere ez da Ferixa Nagusiko jaiak betiko moduan ospatzerik izango Elgetan. Egoera, ordea, iaz baino hobea dela ikusita, hamar bat ekitaldiz osatutako egitaraua iragarri du Udalak.

Egitarau horrek 7.500 bat euroko aurrekontua du, eta uztailaren 2tik 4ra bitartean gauzatu da. "Normalean, urtarrilean jartzen da martxan Ferixa Nagusiko Jai Batzordea, baina aurten, azken unera arte egon gara zain. Zer baitetan hasi bai,

baina ezer gutxi zehaztu barik egon gara ikusi arte, gutxienez, pandemiaren egoera zein den eta bete beharreko neurriak zeintzuk diren", azaldu du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok.

Antolatutako ekintzak, bestalde, neurriak betetzeko modukoak direla azpimarratu du udal ordezkariak. "Hori izan da irizpide nagusietako bat. Jendeak errespetatu egin ditu neurriak orain arte, eta ez dut uste orain arazorik egongo denik, baina ekintza gehienak Espaloian eta frontoian izango dira, eta plaza

kopuru mugatuarekin. Beraz, gozatu ingurukoekin, baina, betiere, arduraz jokatu".

Sarrerak udaletxean

Harri-jasotze erakustaldia frontoian izango da, erretiratuendako bingo saioa eta trikiti emanaldia Espaloian eta ume jaiaberriei egindako ongietorri ekitaldi biak ere antzokian. Burrunga elektrotxarangaren emanaldia zein *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatu ere Espaloian izango dira. "Frontoian 150 lagun sar daitezke, eta an-



Burrunga elektrotxarangako bi kide. BURRUNBA ELEKTROTXRANGA

tzokian 90. Sarrerak doan izango dira, eta udaletxean jasotzeko aukera egongo da asteleheneretik aurrera", azaldu du Bilbaok. "Lekurik badago, egunean bertan ere eskuragarri egongo dira sarrerak atean", zehaztu du.

Miren eta Arkaitz trikitilari bikotea ezaguna da aurretik ere Elgetan. Urtero girotzen dute erretiratuaren bazkalostea. "Burrunga elektrotxaranga iazko jaietarako lotu genuen. Ez zen jairik egin, eta konpromisoa hartu genuen kontratua bertan behera utzi barik hurrengo po-

sible zenean programatuko genituela. Aretoetarako egokitu-tako emanaldia dute, eta hori eskainiko dute zapatu arratsaldean. Berezia izango da elektrotxaranga bat eserita ikustea, baina horrela beharko du aurten", esan du Bilbaok.

Ez da kasualitatea bertso saio musikatuaren berriz, lau emakume egingo dute bertsoetan eta gai-jartzailea ere emakumezkoa izango da. Bertsoetan egingo dute Oihane Iguaranek, Ainhoa Agirreazaldegik, Maider Arregik eta Ane Labakak. Gai-jartzaile

LEGERITY
BEAUTY HAIR COLLECTION

Gu ere elgetarrekin!

ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

[f](#) ilea peluqueria/ileapaindegia

Une berezi hauetan, Elena Elkorok besarkada handi bana eman nahi die elgetar guztiei

Formatu txikiko azoka aurtan

Pandemia egoerara egokitutako azoka egingo dute aurtan Elgetan. Domekan, uztailak 4, egingo dute eta, azken konfirmazioen zain, hamahiru bat postuk osatuko dute. Baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek aurreratu du herriko zein Deba eskualdeko baserritarrak eta artisauak izango direla azokan, eta ez dela ganadurik egongo aurtan. Parte hartzaileen artean izango dira, besteak beste, herriko hiru artisau, gozo marokorarrak egiten dituzten bi herritar, Elgetako ogi ekoizle bat eta hiru barazki saltzaile. Horrekin batera, Elgetako Baobeer garagardo ekoizleak, Elgoibarko Lizagar sagardogilea, Oñatiko Murgialdai txakolingilea eta Antzuolako Pikunieta gaztagileak. Interesatu gehiago egonez gero, azken egunak dira izena emateko.

Goiena telebistak saio berezia

Ez dira ohiko jaiak izango, baina elgetarrek zelan biziko dituzten jakiten saiatuko da Goiena telebista. Maider Arregik gidatuko du saioa, eta bariku iluntzean izango da ikusgai, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan: "Elgetan 30 urtez trikiti eskolak eman dituen Adolfo Jainaga izango dut gidari-lagun. Bi pieza ere joko dituzte Elgetako trikiti eta pandero eskolako ikasleek".

Protagonista izango da, baita ere, urtero mozorrotzeko ohitura handia duen kuadrilla bat, eta, horrekin batera, aurtan harri-jasotze erakustaldia egingo duen Imanol Albizu Goikoetxe. Unai Cantabrana gazteak pieza bat eskainiko du, eta kalez kale herritarrak zirikatzen ibiliko da Aitor Agiriano, mikroa eskuan. Ikustekoa izango da, zalantzarik gabe.

Jaien ordezkoko egitaraua

Uztailak 2, barikua

- 11:00 Puzgarriak eta jolasak.
- 12:00 Harri-jasotzaileak: Imanol Albizu eta Karmele Gisasola.
- 13:00 Meza. Xalbadorpek antolatuta.
- 15:30 Puzgarriak eta jolasak.
- 16:00 Erretiratuendako bingoa eta trikitalariak.

Uztailak 3, zapatua

- 11:15 Esna deia dultzaineroekin.
- 12:00 Harrera jaioberriei. Bi txandatan.
- 18:00 Burrunba elektrotxaranga, Espaloian.

Uztailak 4, domeka

- 09:00 Azoka.
- 18:00 'Ez da kasualitatea' saioa.

lanak, berriz, Amaia Agirrek egingo ditu.

Umeak ere protagonista

Jaietako barikua umeen eta erretiratuaren eguna izan ohi da Elgetan. Aurtan ere bi kolektibo horiek izango dira protagonista barikuarekin. Eguraldiak laguntzen badu, umeendako puzgarriak eta jolasak izango dira goizez zein arratsalde. Aire zabalean egingo da eskaintza hori –plazan zein kantxan–, eta eguraldiak laguntzen ez badu, bertan behe-

ra geldituko da. Hala zehaztu du Udalak.

Jaioberriak ere protagonista izango dira. Iaz ongietorri ekitaldirik jaso ez zutenek 12:00etan dute hitzordua Espaloian. 2020ko ekainetik 2021eko ekainera bitartean jaiotakoek, berriz, 13:00etan. Hamaika dira lehen taldean eta hamahiru bigarrenen. "Oraintxe bidali ditugu gonbidapenak, eta ikusiko dugu parte hartzera animatzen diren. Harrera ona izaten duen ekitaldia izaten da", esan du Bilbaok.

Haur horiek jasoko dituzten jaietako zapi moreak dagoeneko prest dira, eta ekitaldiak urteroko formatua izango du. Aldaketa bakarra da antzokian egingo dela, udaletxeko areto nagusian egin beharrean.

PLAZA MUGATUKO EKITALDIETARAKO SARRERAK ASTELEHENEAN JASO DAITEZKE

Gozatu, arduraz

Kultura segurua dela azpimarratu du Kultura zinegotziak. Udalaren mezua, bestetik, argia da. "Arduraz eta errespetuz jokatzeko izango da hemen gako nagusia", esan du. "Denok dugu normaltasunera itzultzeko gogoia, eta normala da, baina ez gaude, oraindik, egoera normalean, eta neurriak mantendu beharko ditugu. Horrela izango delakoan nago. Horrela izan da orain arte. Beraz, gozatu ingurukoekin, baina neurriak errespetatuz".

Arduraz jokatu, ekintzez gozatu!

ELGETAKO UDALA

Herriko harakina harri jasotzen ikusteko aukera

Imanol Albizu 'Goienetxe'-k baztertuta izan ditu harri jasotze erakustaldiak, pandemiak eraginda, baina gogotsu itzuliko da plazara, herrian bertan. Dio lehengo mailari eustea zaila izango dela, baina ahal duen ondoen egiten saiatuko da, hilaren 2an

Amaia Txintxurreta ELGETA

Herriko harakina izateagatik da ezagun Imanol Albizu *Goienetxe*. Baina harri jasotze erakustaldietan ere parte hartu izan du. Elgetan duela dozena bat urte inguru egin zuen bere azkenurreko erakustaldia harri jasotzen, eta azkena, pandemia iritsi aurretik, 2019ko San Roke kaleko jaietan eskaini zuen. Gogotsu itzuliko da, ez-jaietan eskainiko duen erakustaldira.

Pandemiagatik, geldi egon da

Azken urte eta erdiko pandemiak eraginda, ez du gogorik izan harri jasotze erakustaldietan parte hartzeko. Honelaxe azaldu



Imanol Albizu, martitzenean, Elgetako Goienetxe harategian. MAIALEN SANTOS

du Goienetxek: "Pandemiak, nire kasuan, dezente eragin du herri kirolak alde batera uzteko orduan. Entrenatzeko, gimnasioetan neurriak egon dira, Bizkaira mugitzea ere arazoa zen... eta baztertuta izan dut. Egoera horrekin ez da animo askorik egon. Badakit publiko gabe egin izan direla txapelketa batzuk, baina nik baztertuta eduki dut".

Itzultzeko gogoz

Ferixa Nagusiko ez-jaietan erakustaldia egiteko proposamena jaso zuenean, sekulako poza hartu zuen: "Ez da gutxi, pandemia egoera honetan egonda, horrelako saio bat egiteko aukera izatea; alkateak deitu zidan eta baietz esan nion. Ez nuen espero, eta poza eman zidan deia jaso nuenean".

Hurrengo barikuan, uztailaren 2an, 12:00etan izango da erakustaldia, baina ez da bakarrik egongo, Karnele Gisasolarekin egingo baitu erakustaldia. "Gisasola nire entrenatzailearen alaba da, harreman estua daukagu, ia batera entrenatzen ibiltzen gara, eta ez gara aurkari izango. Bakoitzak bere lana

egingo du eta elkarri laguntzen izango gara", azaldu du. Oraindik ez daki zenbat kilotako harriak jasotzeko gai izango den, azken entrenamenduetan neur-tuko du hori, baina maila ona ematen saiatuko da.

Puzgarriak eta jolasak ere bai

Uztailaren 2an, bi taldetan banatuko dituzte umeak, adinaren arabera, puzgarri eta jolasetan ibiltzeko, eta talde bakoitzarendako hiru puzgarri jarriko dituzte aukeran: talde bateko puzgarriak herriko plazan jarriko dituzte eta besteak, berriz, kantxan egongo dira. Gune bakoitzean ilarak egin eta txandak errespetatzeko bideak markatuko dituzte eta jolas bakoitzera alde batetik sartu eta beste batetik irteten beharko da. Euria egiten badu, bertan behera utzi beharko dituzte.

Gu ere elgetarrekin!



CIE Recycle

Pagatza Pol. Ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
www.cieautomotive.com

'HEMEN DEBAGOIENA' ELGETATIK

GOIENA TELEBISTA, FERIXA NAGUSIKO EZ-JAIK
UZTAILAREN 2AN, EGUBAKOITZEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00

goiena
Zu hemen zaude.



Harrera ekitaldia, azken bi kintatako umeei

2019ko ekainetik orain arte herrian jaiotako 24 umeri egingo diete ongietorria aurten, iazko etenaren ostean. Gurasoak pozik daude pandemia garaian jaiotako haurrei merezi duten ongietorria egingo dietelako ekitaldi "xume, baina politean"

Amaia Txintxurreta ELGETA

Iaz, pandemiagatik, ezin izan zieten jaioberriei harrerarik egin. Aurten, baina, uztailaren 3an, bi txandatan egingo diete harrera txikiei; 12:00etakoan, 2019ko ekainetik 2020ko ekainera bitartean jaiotako hamaika umek jasoko dute ongietorria, eta 13:00etan, 2020ko ekainetik orain arte jaiotako hamahiru umeri egingo diete harrera. Ekitaldia Espaloia Kafe Antzokian egingo dute aurten, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin beharrean, eta harrera egingo zaion haur bakoitzeko bi gonbidatuk joateko aukera izango dute, gehienez.



Unzetabarrenetxea-Zenitagoia eta Zabaleta-Arnedo familiak, Gironan. M. ARNEO

Gurasoak, ilusioz

Asier Unzetabarrenetxearen eta Ilune Zenitagoiaren Alize txikia duela hilabete jaio zen. Maialen Arnedoren eta Iker Zabaletaren Luken umea, berriz, duela bi hilabete eta erdi. Bi familiak Gironan daude egunotan oporretan, gurasotasun baimenaz familian disfrutatzen, baina ilusioz joango dira hurrengo zapatuan euren txikiei egingo dieten harrerara. Izan ere, ez zuten espero ekitaldia aurten egin ahal izango zenik, eta pozik jaso dute berria; ekitaldi "xume baina polita" dela esan dute.

Haurdunaldia pandemia garaian pasa zuten bi familiek, eta ez zen batere erraza izan; batez ere, medikueto bisita guztiak bakarrik egin behar izan zituztelako emakumeek. "Triste eta haserre" egon dira, uste dutelako bikotekideek ere eskubidea zeukatela ekografietan eta bes-telako azterketetan egoteko.

Erditzeetan, behintzat, bikotekideen babesa izan zuten alboan. Pixkanaka joan dira umea familian eta lagun artean aurkeztzen. Orain, merezi duten harrera egingo diete herrian.



MARI BOLINAGA
ADEIREN AMA

"Itxialdian geundela jaio zen Adei, 2020ko apirilaren 2an. Garai hartan, Debagoieneko Ospitaleko erditzeak Zumarragara bideratu zituzten, eta han jaio zen. Erditze garaian bikotekidea nirekin egon zen. Bisitarik ezin izan genuen jaso ospitalean, eta, etxera bueltatu ostean, bi hilabetez, etxeko goxotasunean hirurok bakarrik egon ginen. Adei bideo-dei bitartez ezagutu zuten familiako eta inguruko gehienek. Gogorra izan zen hasieran, baina, aldi berean, bizipen polita ere bai".



Gu ere elgetarrekin!

MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta



MEK Lema

Doitasunezko torneaketa

Gu ere elgetarrekin!

Pagatza industrialdea 7B • Elgeta • 943 78 80 23 • www.lemasa.com • www.mekgroup.eu





Turismo eta Euskara sailletako ordezkariak, Iñaki Olalde zinegotzia eta Tomaso Galati ostalaria, Txokolateixia aurrean. A.T.

Zazpi plan-proposamen udan herria ezagutzeko

Oñati prest dago udan turistak jasotzeko, eta Udalak bi kanpaina jarri ditu martxan horren baitan: batean, turismo eskaintzaren berri eman du, eta bestean, euskararen garrantzia azpimarratu nahi izan du, Uemaren kanpainarekin bat eginda

Amaia Txintxurreta OÑATI

Oñati prest dago udan turistak jasotzeko, eta Udalak bi kanpaina abiarazi ditu horren baitan: alde batetik, eskaintza turistikoaren berri emateko zazpi plan proposatu ditu; eta, bestetik, euskarari lotuta, Uemak martxan jarri duen kanpainarekin bat egin du.

Eskaintza turistikoa

Zatuz etxeokoen eta lagunekin Gipuzkoa barne-barnera, Oñati! lelopean jarri dute martxan bisitariei zuzendutako kanpaina. Argitaratu dituzten eskuorrietan ikusgai daude herrian udan egin ahal izango diren zazpi plan, hiru gunetan banatuta: erdigune historikoan, Turismo Bulegoa eta San Migel errota ikusi ahal izango dira, baita Txokolateixia ere; Arrikruz-Oñatiko kobetan eta naturagunean, kobak ikusteko aukeraz gain, Gomiztegi baserria eta euskal zaldia ezagutzeko Pottokalekua proposatu dituzte; eta, azkenik, Arantzazu

eta Aizkorriko parke naturalean, Arantzazuko santutegia eta parkeak azpimarratu nahi izan dituzte. Gogorarazi dute garrantzitsua dela bisita gidatuak egin ahal izateko aurrez erreserba egitea.

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradun Ikerne Altubek uste du aurten "familian" etorriko direla bisitariak, batez ere, eta hori kontuan hartuta euren bisita bereziak antolatu dituztela azaldu du; esaterako, kobak kopetako argia jarri bisitatzeke.

Duela gutxira arte, gehienek sei pertsonako bisita gidatuak egin ahal izan zituzte Turismo Bulegotik aire zabalean, baina dagoeneko hogeitaz lagunera igo

GOGORARAZI DUTE EDOZEIN BISITA GIDATUTARAKO ERRESERBA EGITEA KOMENI DELA

dute zifra hori eta espero dute bisitariak iaz baino "lasaitasun handiagoz" etortzea aurtengo udan herrira.

Euskara ardatz

Udalerri euskaldunek beren baitan biltzen duten aberastasuna ikustarazteko eta aldarrikatzeko helburuarekin, Udalak bat egin du, bestetik, Uemaren Bertatik bertara kanpainarekin. Hala, ekimenaren bidez, euskaraz eta euskararekin goatzera animatu nahi dituzte bisitariak. Hainbat material eta euskarri erabiliko dituzte kanpainan, eta, besteak beste, 10.000 mahai-zapi inguru banatuko dituzte herriko jatetxeetan eta tabernetan, euskaraz gain beste bost hizkuntza jasoko dituen hiztegi batekin.

Iaz, hamalau establezimenduk hartu zuten parte. Aurten, momentuz, hamarrek eman dute izena, baina interesa dutenek Euskara Departamentuan eska dezakete informazio gehiago.



Susana Altuna, Sdenka Huaranca eta Jone Arrazola, martitzeneko solasaldian. A.T.

Zaintza-lanetan hobetu beharrekoez hausnartzen

Neskameen istorioetatik hasi eta gaur egungo etxeko langile migratzaileetarako ibilbideaz jardun dute

Amaia Txintxurreta OÑATI

Bizitzak erdigunean: Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat 1950-2020 liburua Selma Huxley bekarekin Miren Aranguren eta Jone Arrazolak egindako ikerketa-lana da, eta horren bueltan antolatu duten bigarren lan-saioa egin dute.

Oñatiko zaintzaileen lana izan zuten hizpide. Guztira, hogeitaz emakume batu ziren, horietako asko gaur egun Oñatin etxeko lanetan jarduten dutenak, eta eurak batzearen garrantzia azpimarratu zuen Arrazolak solasaldian: "Emakume horiek el-

kartzea sekulako aurrerapausoa da, sektore horretako lehenengo zailtasuna delako indibidualizazioa, ez dago saretze bat, eta horrek zaildu egiten ditu lan-baldintzen aldeko borroak eta emakume horiek ahaldunduta egotea. Hori 1950ean ere hala zen, neskameek ez zuten langile izaerarik. 70eko hamarkadatik gaur egunera bitartean ikusten da mugimendu feministaren laguntzarekin lan horri garrantzia ematen joan zaiola, lan izaera hartzen joan dela, eta orduan hasi ziren lan-baldintzak hobetzeko borroak".



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

Orain, herriak hil nahi du

Garai nahasiak dira eta garai nahasiak datoz; nahastuta gaude. Batzuetan, egiten dugun umoreak hautsak harrotzen ditu. Jendea haserretu egiten zaigu eta gogora ekartzen digu umorea behetik gora egin behar dela. Hori egin du bufoiak mendeetan zehar; herriaren defentsan pribilegiatuei eta boteretsuei behin eta berriz gogora ekartzen zien besteak bezalakoa zela: humanoa, hutsala, herriarren tamainako beste mokordotxo bat munduan. Herriaren herria zen, umorez denak berdintzen baitzuten salbuespenik gabe.

Orain, ordea, nago herria ez ote den herritik alden du eta pribilegiatu eta boteretsuen bandora pasa oharkabea. Izan ere, edozein bufoik umorez gogora ekartzen duenean denok berdinak garela eta ezer ez dela beste ezer baino garrantzitsuagoa, molestatu egiten du, deseroso sentiarazi...

Lehen, errege ofendituak hil nahi zuen; baina orain, herriak hil nahi du bufoia. Atera kontuak!

Zazpibidetako sistema berria prest dago

Pilon hidrauliko batzuk eta horiek kontrolatuko dituzten sistema gordetzen duten armairu moduko batzuk jarri dituzte San Migel parrokiaren eta ONCEko postuaren parean. Probak egingo dituzte orain, astebete barru martxan jartzeko

Oihana Elortza OÑATI

Aurrerantzean ere oinezkoek izango dute lehentasuna Zazpibidetako bidegurutzean asteburu eta jaiegunetan. Baimendutako ibilgailuak baino ez dira pasako egun horietan hortik, eta hori ahalbideratuko duen pibote hidraulikoen sistema prest dago dagoeneko. Proba moduan funtzionatuko du datozen egunetan eta asmoa da uztailearen hasieratik martxan egotea.

Matrikula irakurriko dute

Pibote hidraulikoak San Migel parrokiaren parean eta ONCEko postuaren ondoan jarri dituzte, eta bi puntu horietan, baita pibote horien erabilera automatikoki kontrolatuko duten sistema gordetzen duten armairu moduko batzuk. Armairu horien parean, lurrean, kolore zuriko karratu handi batzuk ere badaude. "Ibilgailuak detektatzeko guneak dira horiek. Ibilgailuren batek hortik pasa behar badu, karratu horietako baten gainean jarri eta sistema berri honek matrikula irakurri arte itxaron beharko du. Baimena izanez gero, piboteak jaitsi egingo dira ibilgailua pasatzeko, bestela, sarrera debekatua duen mezua irakurriko du armairuan", azaldu du Izaro Elorza alkateak.



San Migel parrokia parean jarritako armairua eta lurreko detekzio guneak. M.B

Bakardadeko Ama kalean, Aker tabernaren parean, Unibertsitateko etorbideetik datorren ibilgailuari pasatzen uzteko seinalea marraztu dute, eta hango aparkalekuetako bat bizikletak uzteko gune moduan erabiliko da aurrerantzean, armairua jarrita ez dago-eta toki nahikorik ibilgailu bat aparkatzeko.

Ordutegia lehengoa izango da

Sisteman honen hesiak, kamerak eta semaforoak jarri dituzte, esaterako, asteburuko zirkulazioa neurtzeko, baina ez

dute gura ziren emaitzarik lortu, eta pibote hidraulikoen sistema jarri dute orain. Errioxako Nortrafic SL enpresak egin ditu lanak eta 35.000 pasa euroko aurrekontua izan dute.

Hain zuzen ere, apirilaren erdialdean hasi dira lanak egiten, eta, dena ondo bidean, uztailearen hasieran egongo dira martxan. Ordutegia ohikoa izango da: egubakoitz arratsaldetik zapatu goizera eta zapatu arratsaldetik domeka gauera egongo da itxita bidegurutzea ibilgailuendako.

"Asko ari naiz pilotaz disfrutatzen, eta pozik nago"

UXUE OSES ALOÑA MENDIKO PILOTARIA

Hiru txapelketatan ari da parte hartzen aldi berean

Oihana Elortza OÑATI

Astelehenean, *Plazandreak* saioan jokatu du Uxue Osese (Oñati, 2005), hirukote formatuan; martitzenean, Master Cup-eko finalaurrekoa du Madalen Etxegararekin batera; eta uztailearen 10ean, Oñatin jokatu du, Plazaz Plaza txapelketaren barruan. **Beteta duzu agenda.**

Bai. Denbora asko egon gara ganoraz jokatu barik, pandemia-gatik, eta orain partidu asko ditugu. Pozik nago.

Eguaztenean jokatu zenuen, esaterako, Plazaz Plaza txapelketako lehen partidua. Zer moduz joan zen?

Oso gogorra. Tanto luzeak egin genituen eta luze joan zen partidua, bai. Azkenean, baina, irabazi egin genuen (22-19).

Amaia Aldai duzu bikote txapelketa horretan.

Elkarren kontra jokatu izan dugu eta ezagutzen nuen, baina lehen aldiz jokatu dugu bikote moduan eta ondo konpondu eta aritu gara.

Zelan jaso zenuen Ados elkartearen proposamena?

Ba, egia esan, oso pozik. Asko ari naiz pilotaz disfrutatzen eta aukera honekin pilotan jokatzeko aukera gehiago izango ditut, eta oso pozik nago. Gainera, Euskal Herri osoan arituko gara eta hemendik kanpo ere bai. Uztailearen erdialdean, adibidez, Kataluniara goaz.

Oñatin ere jokatu duzu.

Bai, hala da. Plaza ondoko frontoian izango da partidua, uztailearen 10ean. Oihana Orbe-



Oses, Zubikoako frontoian. MIREIA BIKUÑA

gozo eta Laia Salsamendi izango ditugu aurkari.

Aurretik, baina, badituzu beste partidu batzuk.

Hilaren 28an, *Plazandreak* saioan arituko naiz, hirukote formatuan. Eta hurrengo egunean, martitzenean, Master Cup-eko finalaurrekoa jokatu dut, Madalen Etxegarai bikotekide dudala.

Master Cup irabaztea zer den ere badakizue Etxegarai eta biok.

Pilota bigunarekin jokatu irabazi genuen txapelketa hura. Orain, pilota mistoarekin ari gara jokatzeko. Txikitatik ezagutzen dugu elkar, askotan aritu gara pilotan elkarrekin, ondo ezagutzen dugu elkar.

Eskubaloian urtean zehar, orain pilotan... Oporrak hartuko dituzu?

Bai, bai. Uztaila beteta dut, baina abuztuan hartuko ditut opor egun batzuk.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Martitzenean, Eltzian, entsegu orokorrean. LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEA

Trikitia, bertsoak eta dantzak, batera bihar

Trikitia eta panderoa jo gura duenari horretarako tokia baduela esateko eta trikitiari berari balioa emateko antolatu dute biharko 'Hauspotuz bizitza!' jaialdia, elkarrekin, herriko trikitizaleek, bertsolariek, dantzariak eta musika ikasleek

Oihana Elortza OÑATI

Trikiti doinuaren izaera hauspotzeko jaialdia antolatu du biharko, zapatua, Lizargarate Trikitizale Elkartek. "Trikitia ez da bakarrik txorimaloekin batera edo ospakizun konkretu batzuetan bakarrik jotzen den instrumentua. Beste diziplinekin ere ondo uztartzen da, beste instrumentu batzuekin batera ere jo daiteke, eta horixe erakutsi gura dugu jaialdi honetan", dio elkarteak kide Garazi Billarrek.

Elkarlanean prestatutakoa

Horrela, Txinparta bertso eskolako bertsolariek, Oñatz dantza taldeko dantzariak eta Jose de Azpiazu musika eskolako musika ikasleek ere parte hartuko dute Santa Ana antzokian bihar 17:00etan egingo den *Hauspotu bizitza!* jaialdian. "Bertso eta dantza musikatuak izango dira, adibidez, eta aparte joko diren trikiti eta musika piezak ere entzungo dira. Lau taldeon

artean antolatutako emanaldia izango da. Musika eskolakoak ez besteok, gainera, Eltzian egiten ditugu gure entseguak, eta batu eta ekitaldi hau elkarlanean egitea pentsatu genuen. Martitzeneko entsegu orokorra ere, adibidez, hantxe egin genuen", dio Billarrek.

Trikitia edo panderoa jotzen hasi gura duten herritarrak horretara animatu eta Lizargarate Trikitizale Elkartea bizi-berritu ere gura dute emanaldi honekin. "Gogoan dut duela hamar bat urte-edo trikiti jaialdi txiki bat eta ondoren erromeria antolatu zirela Atzeko kalean. Hantxe jo nuen nik lehen hurrezkero, makina bat auzotako

**DOAN DA EMANALDIA
ETA PERTSONA
BAKOITZAK BI
SARRERA HAR
DITZAKE GEHIENEZ**

jaietan eta bestelakoetan ere bai. Eta horixe berreskuratu gura dugu honekin, trikitia edo panderoa jo gura duenari esatea baduela horretarako aukera eta tokia". Azken asteetan egindako ikastaroek izan duten harrerarekin ere pozik daude Lizargarate Trikiti Elkarteko kideak: "Ikastaro hauek antolatu ditugu jendeak probatzeko instrumentu hauek jotzea gustukoa duen edo ez. Maixa Lizarribar, Xabier Berasaluze *Leturia* eta *Lutxurdixo* izan dira irakasleak eta eurak ere gustura ibili dira. Badugu asmoa hemendik aurrera ere ikastaro gehiago edo bestelakoak antolatzeak. Duela urte batzuetatik hona, udazkeneko jaialdia eta Lizargarate Eguna antolatu izan ditugu, baina gehiago egiteko gogoz gaude".

Antzokiaren edukiera 158 lagunekoa da egun. Gonbidapenak gaur, 18:00etatik 19:00etara, eta zapatuan, 11:00etatik 12:00etara, banatuko dituzte, plazan.

Udalekuak eta kirol ekintzak astelehenean hasiko dira

Eltzia, gaztelekua eta kiroldegia izango dira gune nagusiak, baina herrian zehar ere ibiliko dira gaztetxoak

O.E. OÑATI

Astelehenean hasi eta lau astez, udaleku irekietan hartuko dute parte HH-3tik LH-6ra bitarteko 400 neska-mutikok. Joan den urtean baino material gehiago izango dute, uraren eguna eta ur-jolasak berreskuratu dituzte eta Araotzera, Arantzazura, Zubillagara, Olabarrietara eta Usakora ere joango dira, adibidez.

Bi gunetan banatuko dira udaleku irekietan: LH-2tik LH-6ra bitarteko enreferentzia puntua Eltzia izango da, eta inguruko auzoetan egongo dira elkarguneak;

HH-3 eta LH-2 arteko en gunea, berriz, gaztelekua izango da, eta elkarguneak azoka, frontoia eta inguruko beste gune batzuk.

Udako kirol kanpainan, 700dik gora ume izango dira, HH-4 eta DBH artekoak. 22 jarduera eskainiko dituzte, 1.300 ekintza baino gehiago, guztira. Gofa, xakea eta uretako ekintzak, esaterako, lau asteoak izango dira, baina jarduera gehienak, bikoak; lehen txanda uztailearen 9ra arte izango da. Zubikoa izango da gune nagusia, baina hortik kanpo ere ibiliko dira.

Onarori buruzko azalpenak emango dituzte eguaztenean

Oñatiko telekomunikazio operadorea da Onaro. Dagoeneko martxan dago eta Bidebarrieta kalean Oñargik duen bulegoan eskatu edo www.onaro.eus webgunean ikus daiteke informazioa. Baina Onaro zer den azaltzeko eta herritarren galderei erantzuteko saioa egingo dute eguaztenean, hilak 30, zinema aretoan, 18:00etan.

Joan den asteburuan egindako kalteak salatu ditu Udalak

Oñatiko Udalak salatu egin ditu joan den asteburuko kalteak: zirkulaziorako ispiluak eta autobus geltokietako markesina batzuk apurtu, esaterako. "Kalteak konpontzeak, udal aurrekontuak ez ezik, langileen lanorduek ere eskatzen ditu. Denoi eragiten digu. Bideratu ditzagun indarrak herria eraikitzen", zioen alkateak.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Gaueko arrastoak, egunez agerian

Domeka goizean Santa Marina plazan ikusitakoak arreta piztu zion argazkia bidali zuen herritarrari: "Bertan daude edukiontzia, plazan bertan, eta ez dituzte erabili."

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



ZUK ERE %100 EMAN DUZULAKO...

**GOIENA TELEBISTAK
INOIZKO DATU ONENAK**

11.000
IKUSLE

11.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista,
CIES erakundearen audientzia neurketen arabera.
Tokiko telebisten artean ikusiena da Gipuzkoan.

Eskerrik asko guztioi.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!
▶

goiena

Zu hemen zaude.

Xabier Urzelai ARRASATE

Pablo Irizarrek (Gabiria, 1961) aitortzen duen moduan, duela hamabost egun ostera ere "debutatzea" tokatu zitzaion Nafarroako Los Arcosko zirkuituan. Autozale gazteenek ez dute ezagutuko, baina Bergaran bizi den pilotua 90eko hamarkadan erreferente izan zen Citroen AX, ZX eta Renault Clio txapelketetan. 24 urte geroago, Mini Cooper Kopan parte hartzeko aukerari baietz esan dio, inolako zalantza barik, eta asteburuan Chesten (Valentzia) izango du egutegiko bigarren lasterketa. Los Arcosen ikusi zuen azkar joateko kapaz dela oraindik, baina egunotan pauso bat aurrera eman nahi du.

24 urte zirkuituetatik urrunduta egon eta gero, zelan sortu zaizu ostera ere lasterketetako auto baten esertzeko aukera?

Rafa Valdes taldekideari esker izan dut aukera hau. Rafaren deia jaso nuen esanez ea irakatsiko nion zirkuituetan azkarrago joaten, esperientziadun pilotu baten laguntza nahi zuela. Eta noski, nik baiezkua eman nion, horrek aukera emango zidalako, besteak beste, ostera ere Jaraman itzuli batzuk emateko. Los Arcosen eta Jaraman ibili ginen entrenamendu saio batzuk egiten, eta ondoren egin zidan taldea osatzeko proposamena, Mini Cooper Kopan bi pilotu behar dira-eta auto bakoitzeko. Emaztearekin komentatu nuen gaia, eta hark ere animatu egin ninduen, aukera aprobetxatzeko, ez dudalako halakorik ostera ere izango.

Izan ere, halako txapelketa baten esku hartzea ez da batere merkea...

Zorionez, Rafak enpresaren babesletza dauka, eta horri esker ari gara Kopan esku hartzen; bestela, langile soil batendako dirutza da. Pentsa, Kopan esku hartzeko autoa erosi beharra dago eta 30.000 euro dira auto bakoitzeko. Lurautok 30 auto saldu ditu, eurak dira prestatzaile ofizialak, eta ondoren, zirkuitu bakoitzeko gastuak datoz. Oso garestia da; horregatik da oso aukera polita.

Esan duzu ostera debutatu izanaren sentsazioa daukazula. Eta deskuidatuz gero, gazteta baino ilusio handiagoarekin.

Bueno, ez pentsa, gazteta ere sekulako ilusioarekin ibiltzen ginen. Ni 26 urterekin hasi nintzen lasterketetan, ordurako



Pablo Irizar, Los Arcosko zirkuituan azalpenak ematen, lehenengo lasterketan. ©LACOPACOOPER

"Uste baino azkarrago gidatzeko gai naiz oraindik"

PABLO IRIZAR PILOTUA

AUTOMOBILISMOA 1990eko hamarkadan nabarmendu zen, Citroen AX, ZX eta Renault Clio kopetan, eta 25 urte geroago zirkuituetara itzultzeko aukera izan du, Mini Cooper Kopan

nahiko nagusia nintzen. Gaur egun, gazteak 16 urterekin hasten dira; pentsa, Isidro Callejas madrildarra 16 urterekin igo da Europako Txapelketako podiumera.

Valentziako Chesten duzue asteburuan bigarren lasterketa.

Bai, eta hor ere ondo egiten dugu bat Rafak eta biok. Izan ere, autoak kamioian eramateko laguntza behar zuen, ez zituen nahikoa ordu bidaia Valentziaraino jarraian egin ahal izateko, baina ni ere kamioian ibiltzen naizenez, bion artean egingo dugu bidaia..

Eta zer moduz joan zen Los Arcosko lehenengo lasterketa?

Oso ondo, pozik amaitu nuen. Hasteko, deigarria egin zitzaidan lasterketa aurretik ze lasai nengoen; gazteta urduriago egoten nintzen. Hain justu, gure lasterketaren aurretik istripu bat gertatu zen zirkuituan eta ordu erdiz auto barruan egon behar izan genuen geldirik. Semea neukan nire pultsua zaintzen eta esaten zidan oso lasai nengoela, eta egia zen. Lehenengo lasterketan laugarren irten nintzen eta hirugarrenarekin borrokan ibili nintzen.

"24 URTEREN OSTEAN, DEBUTATZEA BEZALA IZAN DA"

"CITROEN ZX AUTOAK AZKARRAGOAK ZIREN, ETA ARINAGOAK"

"CHESTEN APUR BAT AZKARRAGOAK IZATEN SAIATUKO GARA"

Baina probaren bigarren zatian behera egin nuen apur bat eta seigarren amaitu nuen. Bigarren lasterketan, berriz, hobeto ibili nintzen eta pozik geratu nintzen erritmoa baneukala ikusita.

Aitortu didazu Rafak proposamena egin zizunean zalantzak izan zenituela, ez zenekiela azkarra izaten jarraituko zenuen ala ez.

Izan ere, jendea oso azkar ibiltzen da zirkuituetan, eta 24 urte asko dira lasterketetan lehiatu barik. Azkenekoz 1997an izan nintzen pilotu moduan lehian, Citroen ZX Kopan izan zen, eta ordutik denbora asko pasa da. Eta ikusi dut oraindik sasoian nagoela. **Segituan uxatu zenituen zalantza horiek.**

Baietz esan daiteke. Kuriosoa da, uste nuen bihurtune bizkorretan galduko nuela gehiago, errespetua ematen dutelako, baina ez, bihurtune moteletan igarri dut gehiago azken urteotan ibili ez izana. Lehen ere, lasterketa baten ondoren egin dako lanaren analisisa egiten nuen, zer egin nuen ondo, zer txarto, non izan nintekeen azkarragoa... Eta orain, berdin jarraitzen dut. Chesten aurrerago ibil naitekeela uste dut.

Zelakoa da lasterketa asteburu bat?

Zapatu goizetan 40 minutuko bi entrenamendu txanda libre izaten ditugu. Eta zapatu eguerdian entrenamendu ofizialak izaten ditugu, pilotu bakoitzak 20 minutuko txanda bana izaten du. Eta lasterketa eguna domeka da. Ordubetako bi lasterketa izaten dira, baina pilotuok txandakatu egin behar izaten dugu. **Auto guztiek ezaugarri berberak izanda, pilotuaren 'eskua' igarri egingo da.**

Bai, igartzen da, noski. Oso txapelketa polita da, autoak berdin-berdinak dira, auto guztiek dituzte 180 zaldi eta borroka etengabea izaten da. Egia da zenbait pilotu *rookie*-ak direla, hasiberriak, eta errespetu handia egoten da zirkuituan, ez dira txapa istripuak eta halakoak gertatzen.

Badu zuen garaiko lasterketekin antzekotasunik?

Bai, nahiko antzerakoa da. Auto haiek azkarragoak ziren, arinagoak, baina auto lasterketak dira, azken batean. Askoz ere berdintasun handiagoa zegoen. Gogoan dut Jaraman ZX Kopako proba bateko entrenamendu txandan bi dezima barruan hamabi pilotu sartu ginela. Pentsa



Mini Kopan, berdintasuna nagusi

Mini Cooper Koparako 30 auto prestatu ditu Gipuzkoako Lurauto etxeak, nahiz eta denak ez ziren batu egutegiko lehen hitzorduan. Ezaugarri berberak dituzte denek, 180 zaldiko potentzia, eta, guztira, bost lasterketa egingo dituzte.



Citroeneko pilotu ofizial izan zen

1990ean, hamasei lasterketetatik hamabost irabazita Citroën AX Kopa poltsikoratu zuen Pablo Irizarrek, eta 1991n, Citroëneko pilotu ofizial izan zen, ZX batekin. 1992an, Renault Clio Kopan ere gailendu zen, eta 1997ra arte ZX Kopan lehian jardun zuen.

gero lasterketa zelakoa izan zen... Oso lasterketa gogorrak izaten ziren. Egia da orduko ZX Mini autoa baino arinagoa eta azkarragoa zela. Citroën autoa ez zen iristen 900 kilora, eta Mini Cooper autoak mila kilo baino gehiago ditu. Jaraman 1.45eko denbora egiten genuen ZX autoarekin, eta orain, Mini autoarekin 1.53ren bueltan gabilta. **Bitxia da, sasoi hartan eskualdeko pilotu asko izan zineten lasterketetan lehian.**

Eta inguruan ez genuen zirkuiturik! Martin Egañak izan zuen

guri lasterketetako harra sartzearen *errua*. 1987an Renault 5 Copa Turbo ikusgarri bat zuen kalean ibiltzeko, eta hura saldu eta lasterketetako Renault Super 5 bat ekarri zuen. Eta zirkuituetara lagunduko niola esan nion nik. Bada, bera izan zen gerokoei bidea ireki ziguna. Ondoren etorri ziren Jon Casais, Iban Rodriguez, Juan Antonio Egaña, Nire anaia Juanra ere hasi zen, Arrasateko Jon Garagorri, Legazpiko Mostajo... Inguruko kuadrilla polita batzen ginen sasoi hartan, bai.

Maila gorenean egin dute debuta, Eibarrekin

FUTBOLA Uxue Iparragirre antzuolarrak urrian egin zuen debuta, eta, guztira, hiru partidu jokatu ditu Eibarko talde nagusiarekin. Eider Egaña atezain oñatiarrak, berriz, talde nagusiarekin du fitxa, eta joan den astean defendatu zuen atea lehenengoz

Xabier Urzelai ARRASATE

Emakumezkoen liga gorenari jardunaldi bakarra geratzen zaion honetan –Eibarrek Bartzelonaren kontra agurtuko du liga–, Eibarko talde nagusian Debagoieneko bi jokalarik egin dute aurten debuta, eta eurekin izan da GOIENA.

Uxue Iparragirre antzuolarrak bigarren taldearekin du fitxa, baina ezker hegaleko jokalaria urrian jokatu zuen lehenengoz talde nagusiarekin. "Aste barruan eurekin entrenatzen gara, egubakoitzetan bakarrik izaten ditugu entrenamendu saioak aparte, eta plazera izan da lehenengo taldearekin horrenbeste denbora pasatzea. Hala, urrian jokatu nuen lehenengo partidua, eta, guztira, hiru jokatu ditut. Madrilen kontra eta Huelvako Sportingen kontra beste biak. Egia esan, lehenengo partiduan ezustean harrapatu ninduelako edo ez nintzelako urduri egon, baina bigarren partiduan bai, hor igarri nuen presio gehiago".

Antzuolako jokalariairendako urte oso polita izan da, eta datorren denboraldian aukera gehiago izatea espero du. "Duela bi aste lortu genuen matematikoki mailari eustea eta datorren urtean ere bigarren taldean jarraituko dut, baina espero dut



Eider Egaña oñatiarra eta Uxue Iparragirre antzuolarra. GOIENA

lehenengo taldean ere egon ahal izatea", adierazi du. Asteburuan harmailetan jarraituko du partidua, Bartzelonan.

Erañak, ametsa beteta

Leire Eraña oñatiarra, berriz, asteburuan izan da albiste, denboraldian zehar talde nagusiko aulkian pazientzia zain egon eta gero azkenaurreko jardunaldian iritsi zitzaion-eta debutatzeko aukera. Taldeak galdu egin zuen, baina Erañak pozik egoteko motiboak zituen. **"Orain arte izan dudana ame-**

tsik handiena bete dut", adierazi zion Erañak GOIENari asteburuan bertan, oraindik zapatuko bizipenak fresko-fresko zituela. "Pena izan zen partidua galdu izana. Oso azkar jarri ginen markagailuan atzetik. Baina garbi geneukan emaitza gutxienezkoa zela, mailari eusteko helburua lortuta geneukalako eta gozatzeko eguna zelako. Orain dela bost urte, Aloñan ari nintzela, oso urrun ikusten nuen, ezinezkoa. Badut hilabete batzuetan gustura egoteko motiborik!".

ERRUGBIA

Aurrenekoz selekzioarekin

Euskal selekzioaren 16 eta 18 urtez azpikoak Gijonen izan dira. Bertan, ARTK ordezkaritza zabala izan du. 18 urtez azpikoetan, Ander Hickey eta Irasuegi anaiak izan dira, baina arretagune nagusia emakumezkoen taldean izan da, klub zuri-morearen historian lehenengoz taldeko bi jokalarik izan dira-eta selekzioan: Ane Rincon eta Morgana Via.



ARRASATE RUGBY TALDEA



Maiatzean Ganbara abesbatzak eskaini nuen 'Sacrum' kontzertua. GOIENA

Abesbatzak, kontzertuak eskaintzeko "gogotsu"

Oñatiko Ganbara abesbatzak 'Udako gauak' izeneko emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, Hots Abesbatzarekin batera, Asentzioko ermita kanpoan; Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gazteak bazkideentzako 'Love' emanaldia egingo dute domekan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Ohiko jardunera itzultzen ari dira abesbatzak. Geldi egon diren koruek maiatzean ekin zieten entseguetara, ikasturtea amaitu aurretik kontzertuak eskaintzeko asmoz. "Debagoieneko ia talde guztiak martxan gaude, eta poztekoa da hori. Gogotsu eta pozik gaude berriz ere zuzenean ekitaldiak hasteko eta

publikoaren aurrean abesteko", azaldu du Ganbara eta Hots abesbatzetako eta Bergarako Orfeoiko zuzendari Aitor Biainek.

Asentzioko ermitan

Oñatiko Ganbara abesbatzak "oso gustuko" duen *Udako gauak* ekitaldia egin izan du urtero ekaineko azken ostiraletan, eta gaur ere hala egingo du. Ohiko

agertokiak kanpo egiten dituzte ekimen horretako kontzertuak; besteak beste, Lazarraga Lorategian, San Migel parrokiaren parean eta Arantzazun izan dira aurreko aldietakoak, eta gaur, Asentzio auzoko ermita kanpoan egingo dute, 22:00etan hasita. Taularen gainean, baina, ez dira Ganbarako abeslariak bakarrik egongo, alboan izango

dituzte-eta Hots Abesbatzako kideak eta baita Amaia Zipitria piano-jolea ere. "Berezia izango da, hala delako aukeratutako tokiak ere. *Erraiak* izeneko programa eskainiko dugu; hau da, barrutik, -euskal kulturatik eta tradizioz- kantatzea da gure asmoa".

Sarrera doan da, baina *Oñati.eus* atarian eskuratu behar dira gonbidapenak. Hala ere, emanaldiaz gozatzeko beste aukera batzuk daude: Goiena telebistak zuzenean eskainiko du, *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da *Goiena.eus* atarian, eta baita Ganbararen sare sozialetan ere.

'Love' kontzertua Bergaran

Bergarako Orfeoia eta Aitor Garitanok zuzentzen duen Orfeoi Gazteak bazkideentzako *Love* izeneko emanaldia egingo dute

etzi, Santa Marina elizan, 19:00etan hasita. "Etorri gura duten guztiendako ateak zabalik daude. Hari-laukote bat eta bi piano-jole izango ditugu lagun. Maitasunari buruzkoa izango da, estilo askotariko piezekin osatuta eta hainbat hizkuntzatan kantatuta".

Gaur egun, 110 bazkide ditu Bergarako Orfeoia, baina kopuru hori handitzea da euren helburua. Bazkide egiteko, hainbat modu daude: domekako kontzertuan edo *Bergarako-orfeoia@gmail.com* helbidera idatzita. Egin beharreko gutxieneko ekarpena 12 euro da, eta trukean jasotako onurak askotarikoak: bazkideen kontzerturako sarrera, Bergarako Orfoiaren loteria-txartela, kontzertu berezietarako beherapenak eta Gabonetako saski baten zozketa".



Abesbatzako kideak kantu berriak grabatzen. BERGARAKO ORFOIA

Orfeoia, mendeurrena prestatzen

2023an mendeurrena beteko du, eta, aurrerapen moduan, garai askotariko argazkiekin bideo bat argitaratuko dute laster euren sare sozialetan, orain dela aste batzuk grabatutako bi kantarekin lagunduta.

'EUSKAL KULTUR TRANSMISIOA'

ARTE GARAIDEA ETA HIZKUNTZA

UZTAILAREN 1EAN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
ZALOA IPIÑA, ARTISTA PLASTIKOA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Flamenko doinuak oinarri dituen Sonakay taldeko kideak. SONAKAY

Flamenko ikuskizuna Udazabal zabaltzeko

Flamenkoa euskaraz egiten duen Donostiako Sonakay taldeak kontzertua egingo du Aldai parkean, eguaztenean, 19:00etan, eta Izadi Ramos Arrasateko musikariak zabalduko du emanaldia; 'Arrasate.eus' atarian eskura daitezke gonbidapenak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 2008an sortu zuten Jose Luis Jimenez *Beltza*-k, David Bernardezek eta Yoni Camachok Sonakay taldea, eta 2015ean boskote bilakatu ziren, Ramon Velez eta David Escudero batuta. Ijitoak eta euskaldunak dira; hori horrela, euskaraz ere abesten dute bihotzean daramaten musika flamenkoa.

"Gogotsu" daude Arrasatera itzultzeko; 2018an San Andres auzoko jaietan eskaini zuten kontzertuaren "zapora gozoarekin". Hala dio taldeko kide Jose Luis Jimenez *Beltza*-k. "Eurria ari zuen, baina jendea ez zen joan, han geratu zen amaitu artean. Oroitzapen politak ditugu, asko gozatu genuen".

'Sonakay guztiekin' diskoa *Sonakay denontzat* lana aurkeztu zuten orduan, eta iaz argitaratu zuten *Sonakay guztiekin* lana izango dute eguazteneko emanaldian oinarri. "Proiektu berezia da hori, adiskidetasu-

naren eta artearen emaitza. Puntako musikariek kolaboratu zuten, hala nola Ketama taldeak, Maria Berasartek, Urkok, Iñaki Salvadorrek, Iker Laurobak, Golden Apple Quartet taldeak eta Omar Gonzalez abeslari kubatarrak.

Gipuzkoako estreinaldia

Musikari kolaboratzaileak alboan zituztela aurkeztu zuten lana, baina apenas izan dute zuzenean eskaintzeko aukerarik. "Sei hilabete gelditu egon ostean, gogotsu gaude ekainaren 5ean Iruñean estreinatu genuen ikuskizuna eskaintzeko, eta uztailaren 16an Antzuolan izango gara. Bost musikariak eta Gema Ines eta Lara Mitxelena txalapartariak

izango gara taularen gainean, eta ordubete inguruko ikuskizuna izango da, oso gertukoa, eta sorpresa batzuekin".

Kontrako ustea egon daitekeen arren, Euskal Herria flamenko-zalea dela dio *Beltza*-k: "Hemen ere zale eta aditu asko dagoela esango nuke. Gu oso harro gaude egiten dugunarekin, eta hala jarraitzeko asmoa dugu".

Herrikoei ere tokia eginda

